

417.ZENBAKIA-AZKOITIKO HERRI ALDIZKARIA -2022KO-OTSAILA



# MAXIXATZEN

**ZENBAKI HONEKIN BATERA**

+ GUKA ALDIZKARIA

FELIPE JUARISTI

## HITZAK DITU BIZIBIDE



erreforma integralak

dica



**URRATEGI**  
INTERIORISMO  
bone dabilin

[www.urrategiinteriorismo.com](http://www.urrategiinteriorismo.com)

Arragusta 27  
20600 Eibar

Arretxe 9  
20730 Azpeitia

...erantzuna gara ...ALBERDI gara

**ALBERDI**  
INMOBILIARIA

943 16 98 78

info@alberdi-inmobiliaria.com  
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA

**Donostiako inmobiliaria  
garrantzitsuenekin  
elkarlanean ari gara.**



3 logela · 2 bainugela · 110m<sup>2</sup>  
**Donostiako Antiguu Auzoan,  
txalet zoragarria**

**Salgai  
695.000€**

**Etor zaitez aukera desberdinak ikustera.**



# MAXIXATZEN 417

2022-OTSAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
ARNAITZ RUBIO APREA

## Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Nerea Uranga, *Ekiteko garaia da.*
- 6 **Hitz bitan** Itxaso Campos, organista.
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Amaia Garate, "Makalak".
- 10 **Iritziak** Karmen Irizar, *Zarata*; Imanol Elezgarai, *Arduraren errua.*
- 12 **Elkarrizketa** Felipe Juaristi, idazlea.
- 18 **Iritzia** Jose Ramon Aranbarri, *Negazionismoa.*
- 20 **Erreportajea** *Zakelen uhinetan.*
- 24 **Bazkideztza eta Zakelmari**
- 25 **Iritzi grafikoa** Sara Rodriguez.
- 26 **Erretratua** Iñaki Garcia, argazkilaria eta publizista.
- 30 **Plazan bazan**
- 32 **Akordatzen** Xipri Larrañaga, Los Xey taldean.
- 36 **Mahai bueltan** Jimena Cardoso.
- 38 **Klik!** Joseba Epelde, erlezaina.
- 44 **Iritzia** Irene Elorza, *Abisatuta gaude.*
- 46 **Iritzia eta bertsoa paperean** Miren Alberdi, *AEK-ko ekosistema.*

MAXIXATZEN

### Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.  
Soreasu 1. 20730  
AZPEITIA  
943-85 36 17  
maxixatzen@maxixatzen.eus  
www.maxixatzen.eus

### Erredaktoreburua

Ane Olaizola

### Erredaktore taldea

Anartz Izagirre  
Andoni Elduaien  
Ane Olaizola

### Diseinu arduraduna

Ibaxo Iraeta

### Publizitate arduraduna

Egoitz Azkoitia

### Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Saloa Murua  
Amaia Garate  
Karmen Irizar  
Imanol Elezgarai

Arnaitz Rubio Aprea  
Jose Ramon Aranbarri  
Gorka Larrañaga  
Irene Elorza  
Miren Alberdi  
Julene Iturbe  
Sara Rodriguez

### Administrazio

### Inprimategia

Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)

### Lege Gordailua:

SS-706/97

ISSN: 1137-8891

Tirada: 850 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



AZKOITIA  
Udala



# PUBLIZITATEA

**Naike**  
**TATTOO STUDIO**

JULIAN ELORZA E AZPETA  
972 17 88 51



**EGUZKI**  
belarjenda  
dietetika  
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-50 34 47 AZKOITIA  
Urbetare 9 bis 943-15 00 23 AZPETA

Web proiektuak  
Software Ingeniaritza

**elkarmedia()**

info@elkarmedia.eus  
943-85 08 74

**e t k**

Informatika Zerbitzuak  
943-02 63 29

www.etkinformatika.com

**br.**

arkitekturastudioa  
santaklara kalea 35 | 943063487  
www.brarkitektura.com

**PB**  
**SPORT**

Iturrondo, 7 • 943-02 56 88  
Kale Nagusia, 87 • 943-85 20 98  
AZKOITIA

**Ita**  
**kun**  
**AK**

NAGUSIA 81 • 943-08 30 00  
www.ita-kun.com • itakun@hotmail.com

**Dean**

Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 82


**ETXEZA**  
**TABERNA**

Etxeza Etxea, Z/G. • 943-85 20 31

**artelan**

Txoko Arango  
NAGUSIA 81  
Tel. 943 85 18 41  
943 75 98 84

- Mokatilo
- Olio-pintura
- Akusio
- Pastela-pintura
- Kati-manatila
- Zeramiketa
- Plafino
- Estukoa



**zur**

OGIARTEKOAK  
SANDWICHAK ETA HARIL-PROZAK  
ENTZALAK  
PAGAK  
GARAGARDO ETA ARDO ESKANTZA ZABALA  
TERREZA HANDIA ZUZENEKO EMANALDIAK

KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75

ARTISAU PIZAK  
ENTZALAK  
FRITIDAK  
PLAZA KONTRATUAK  
RACION  
OGIARTEKOAK  
ARDO ESKANTZA ZABALA  
SOLU ETA ARDO ENFO  
PAREGABEK  
LAPURGIFETAN 30 M ATTE BERTTA

**LATZ**  
TABERNA

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19

**ALDAKO**

SARE ETA INFORMATIKA  
ZERBITZUAK

SAREAK, IRTEERAK ETA  
ORDENAGAILU, MUGIKOR  
ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia  
Tel. 943-08 36 14 • 629 09 52 76  
aldako.informatica@gmail.com



**IBAIONDO BERRI**  
**53 ETXEBITZA BERRI**

www.aranbarri.com

**ARANBARRI**

# Ekiteko garaia da



NEREA URANGA

Zain geunden, bai horixe! Baina egoten egon gabe, ekiteko garaia da orain. Amurriotik (Araba) abiatuko da 22. Korrika, martxoaren 31n, ostegunez, eta Donostian amaituko, apirilaren 10ean, igandez. 11 egunetan, 2.180 kilometroko ibilbidea egingo du euskararen aldeko lekukoak Euskal Herriko zazpi lurraldeetan barrena. Azkoititik bederatzigarren egunean, apirilaren 8an, ostiralez, igaroko da; antolatzaileek egindako aurreikuspenaren arabera, Azkoitira eguerdiko ordubiak aldean iritsiko da Azpeititik, eta herrian barrena lekukoa eskuz esku ibili ondoren, Urretxurako bidea hartuko du. Ostirala eta eguerdiz, asteko egun eta ordu ederrak euskararen aldeko aldarriaren festara batzeko.

*HitzEkin* lelopean egingo da 22. Korrika, hizkuntza bat hitzek osatzen duten arren, hizkuntza baten komunitatea ekintzek eraikitzen dutelako. Alegia, euskara hitzetatik ekintzetara eramateko unea delako, AEK-ren arabera.

Bada, norbanako bakoitzak euskararen alde gure alea jartzen jarraitzeko edota hasteko momentua ere iritsi zaigu: egunerokoan euskaraz hitz eginez, lan eginez ala ikasiz, euskaraz biziz! Euskaraz badakigula, haren alde gaudela edota maite dugula esatearekin bakarrik ez da nahikoa; euskaraz egin egin behar dugu, hitz eginez, hitz eginaraziz, jardunez edota jardunaraziz.

22. Korrika aurrera ateratzen, antolatzen eta hauspotzen ere herritarrok izango dugu zeregina, hala nola Korrikaren aldeko herriko batzordean parte hartuz, materiala erosiz edota parte hartzen dugun taldearen, eragilearen, enpresaren, kuadrillaren... izenean Korrikako kilometroak erosiz. Azkoitiko AEK-k hil honen lehen egunetik du zabalik Korrikako kilometroak erreserbatzeko aukera.

Beraz, atzera kontaketa hasi da, eta hasi beharko dugu era batera edo bestera prestatzen. Urte berria hasi zenetik egunak, asteak, igaro dira, eta urtea estreinatzerako geure buruari promesarik eta erronkarik jarri ez genionok bakarren bati heltzeko ere garaiz gaude oraindik. Nik, behintzat, Korrikarako hasi beharko dut entrenatzen, sasoiok jartzen. Pentsatzen jarrita aurreko zenbat ediziotan gelditu naizen mingaina luze eta Korrikari ezin segituta... Esaterako, urte batean Azkaraten gora lekukoa eramatea egokitu zitzaidanean. Hori da hori aldapa! Beno, aurtengoan behintzat malda hori ez da egin beharko...

Korrikan kilometro bat, erdia edota metro batzuk eginda ere, egunerokoan euskaraz lan eginez eta bizitzen jarraitzea nahi dut; euskara arnas izan nahi dudalako. Beraz, *HitzEkin* diezaiozun herri euskaldun baten alde! ■■■

**ATZERA KONTAKETA  
HASI DA, ETA HASI  
BEHARKO DUGU ERA  
BATERA EDO BESTERA  
PRESTATZEN**

# "Musika tresna izugarria da organoa"

**TESTUA ETA ARGAZKIA:** ANE OLAIZOLA

Duela hiru urtetik organo ikaslea da Itxaso Alberdi (Azpeitia, 2006). Jose Luis Frantzesena organo-jotzailearen gidaritzapean jasotzen ditu eskolak Andre Mariaren Jasokundeko parrokiari, eta Donostiako kontserbatorioarekin uztartzen ditu musika ikasketak.

## **Nolatan hasi zinen organoa ikasten?**

Aurretik pianoa ikasten nuen Bizkargi musika eskolan, eta behin aitona galdetu zidan ea joango al ginen bere lagun Frantzesena organoa jotzen ikustera; asko gustatu zitzaidan. Organoa ikasten hastea proposatu zidan hark, eta hala hasi nintzen.

## **Ez da oso ohikoa gazte bat organoa jotzen aritzea...**

Ez. Egia esan, oso gazte gutxi ari gara organoa ikasten. Azkoitian ni naiz ikasle gazte bakarra; Azpeitian badaude beste laupabost.

## **Frantzesena konposatzailea duzu organo irakasle.**

Azkoitiko parrokiari elkartzeko gara, astean hiru aldiz. Dena den, bera azpeitiarra denez, noizean behin Azpeitiko Esklabetan ere egin izan ditugu entseguak. Egun, organoa mezan jotzen ikasten ari naiz, eta horregatik, batzuetan asteburuetan ere elkartzeko gara meza orduan entseatzeko.

## **Zer eragiten dizu organoa jotzeak?**

Organoa musika tresna izugarria da. Instrumentu pila baten soinua ateratzen ditu, eta indar handikoa da; musika tresna oso polita da.

## **Zer da organoaren gauzarik konplexuena?**

Organoarekin aurretik pianoa jotzen nuenez, eskuekin abilezia hartuta nuen ikasten hasi nintzenerako. Kontua da organoa hankekin ere jotzen dela, eta horrek zaildu egiten du lana. Dena den, batzuetan pianoa jotzea zailagoa egiten zait, teklak nola zapaltzen dituzun ere kontuan hartu behar delako. Organoan, berriz, ezin da kontrolatu teklak indarrez zapaltzen duzun edo ez.

## **Organoa ez ezik, pianoa ere ikasten ari zara Donostiako kontserbatorioan.**

Aurten hasi naiz kontserbatorioan, eta astean hiru egunetan joaten naiz hara. Musika eskolan, laupabost urte egin nituen pianoa ikasten, eta

gurasoei esaten nien gerora ere horretan jarraitu nahi nuela. Duela hiru urte, musika udalekuetara joan nintzen Madrilera, eta han ezagutu nituen lagun asko kontserbatorioan ari zirenak ikasten. Ordura arte ez nuen kontserbatorioari buruz askorik entzunda, baina zer zen jakin nuenean, gurasoekin hitz egin eta bide hori hartu nuen nik ere.

## **Nolako da kontserbatorioko zure egunerokoa?**

Musika eskolan, musika tresnaren bat edota solfeo bakarrik ikas ditzakezu, baina kontserbatorioan musika tresna jakin bat ez ezik, beste ikasgai asko ikasi behar dituzu. Kontserbatorioko eskoletan, saxofoia ere ari naiz ikasten, bigarren musika tresna gisa.

## **Nolako piezak gustatzen zaizkizu?**

Kontserbatorioan, batez ere, autore klasikoekin piezak lantzen ditugu, Bachena eta halakoekin. Musika eskokoei pianoa ikasten jarraitzeko asmoa nuela azaldu nienean, teknika hobetzeko pieza klasikoak jotzen hasi nintzen. Hasieran ez nituen oso gogoko pieza klasikoak, baina orain asko gustatzen zaizkit.

## **Nondik datorkizu musikarekiko zaletasuna?**

Familiatik; aitaren zein amaren senideen aldetik, baina, batez ere, amarenetik. Izan ere, aitona klarineta jotzen zuen Azpeitiko Musika Bandan, eta amak zein izeba-osabek ere musika tresna bana jotzen zuten talde horretan. Etxetik jaso dut zaletasuna, eta horrek eragina izan du.

## **Musika ikasteko bide bat hasi duzu dagoeneko. Etorkizunean, musikaren munduan kokatzen al duzu zure burua?**

Ez dakit. Kontserbatorioko ikasketak amaitzen dudanean ez dut uste musika ikasketekin jarraituko dudarik. Baina hori orain esaten dut, ez dakit orduan zer pentsatuko dudana. Antzerkia ikasten ere ari naiz, eta gustatuko litzaidake arte eszenikoetan trebatzea. Zestoako Antzerki Eskolan ari naiz egun ikasten, eta dezente erakartzen nau mundu horrek. Oraingoan, ordea, kontserbatorioko ikasketak amaitzea nahi dut. ■



## "Makalak"

**ARGAZKIA ETA TESTUA:** AMAIA GARATE

---

Badago zuhaitz bat  
gezurra esaten duena,  
plataneroa izenez baina  
platanorik gabe dabilena.  
Eta makala dugu bestea  
garaietan garaiena,  
makal izena izan arren  
azkarrena hazten dena.

Tapatu zuten mendia,  
gora ta gora azkenean.  
Udaberrian zein udan,  
ezin ikusi daitekeenean.  
Eskerrak behintzat udazkenean,  
hostorik gabe daudenean,  
antzeman dezakegun oraindik  
gure Kakute atzean. ■■■









## Zarata

**B**adakit soinu ozen eta desatsegina dela berez zarata, baina niri ez dit beti belarririk mintzen.

Nik maite dut umeez jolasean ari direla egiten duten zarata, baita ikasleek, milurtekoan behin, eskolako gairen baten inguruan bihotz eta arima ari direnean sortzen den zalaparta. Musika jotzen ikasteko flautari *fu* eta *fu*, nahi eta ezinean dabilen horrek lotzen duen nota kate desafinatu horri poetikoa deritzot nolabait, eta pianoaren teklak zokor mazoarekin zanpatzen ari balira bezala jotzen duten ikasleen ahaleginak badu alde gozo bat. Gehienoi bezalaxe asko gustatzen zait udan jartzten diren terrazetan jendeak hitz-aspertu luzeetan sortzen duen ahots zurrunbiloa.

Ez dakit zehatz-mehatz zergatik ditudan gustuko. Zarata horien atzean dagoenagatik izango da agian. Jolasaren bidez munduan egoten ikasteko lehenengo pausoak direlako edo ikasketa prozesuan nahi eta ezinak, eta erori eta berriro jaikitzeo erakutsi ohi den grina bizigarri horrengatik. Sekulako poza eta harrotasuna ematen du ikasleek proiektu bat garatu, osatu eta jendaurrean azaltzeko gai direla ikusteak. Eta lagunartea berez da ederra.

Baina bai, badira niri ere traba egiten didaten zaratak, aspertu, gogaitu eta lozorroan geratzeko gogoia pizten didatenak.

Belarriko hazkura egiten didate irratietako eta telebistetako tertulia, mahainguru eta programa

askok. Gaia edozein dela ere, iritzia emateko beti solaskide berak eta horiek gehienetan iritzia franko, edukia eskas eta gogoetarik ez. Hitz egiteko tartea ere elkarri harrapatu ezinda askotan eta zein alderdiren adiskide diren ezkutatzeko beharrik gabe.

Belarriko mina egiten didate prentsan etengabe dauden gaiek; 2018ko greba feministaren berri askoz lehenagotik genuen. Medio guztiek egin zioten tartea hilabete luzez. Euria franko egin du ordutik, eta zer geratu zaigu egun hartatik gogoan? Niri argazki eta oihu asko, feminismoak modan jarri dituen hamar bat hitzekin osatutako paragrafoak, kantak eta testuak eta 140 karaktereko sasi-gogoeta ugari etengabe medioetan eta sare

## HAUXE BAI JENEROAI!



sozialetan. Mugarria izan omen zen. Zertan? Argazki kopuruan, medioetako minutu kopuruan... Eta edukietan? Noiz hasiko da edukien gaineko zalaparta?

Gauza bera beste hamaika kontu garrantzitsurekin. Behar luketen garrantzirik eman ez, eta gainera, banalizatu egiten direla uste dut, eta momentuko komenientziara egokitu: umeenganako sexu abusua? Elizan gertatu ote dira bada, bakarrik? Euskalgintzan, kulturgintzan, kirol taldeetan, musika bandetan ez ote da horrelakorik izan? Horien inguruko ikerketa abiatzeko adineko amorrurik sentituko al dugu inoiz?

Guztion ahotan dauden zaintza kontuak langile kopurua igota bakarrik konponduko al dira? Ez al du

zaintzak berez, beste dimentsio bat ere? Humanoa, egoteko denbora eskatzen duena, ezinean dagoenak maite dituen horiekin egoteko bideak eta moduak erraztea eskatzen duena... Ba ote dago inoizko denboran horretaz ere hitz egiteko asmorik?

Pandemiak mundua hankaz gora jarri duen honetan, zertaz ari gara pandemia aurreko bizimodura itzultzea nahi dugula diogunean? Ingurumena etengabe ustiatzen genuen hartara itzultzeaz ari al gara edo kostuak merkatzeko lantegiak leku-aldatzeaz? Sare sozialetan zabaltzen ari den biziera faltsu eta friboloa indartzeaz?

Hori ez da zarata ordea, zerbait gaizki doala erakusten duen kirrinka hotsa baizik. ■■■

## ERREMATEA



IMANOL ELEZGARAI

### Arduraren errua

**A**urrekoan gertuko pertsona batek aurpegiratu zidan COVID-19aren pandemiagatik etxean gelditu izana, parrandara edo tabernara ez ateratzea: "Ez bizitzea". Bada, hala diot: bururaino nago ausazko egoera honetan esandakoa egin, eta hala ere, albo kalteak ordaintzeaz; bi urte galdu izanaren errudun izateaz.

Azkenengo bi urteotan pasatu gara nork bere burua ez medikatzeke entzutetik, norbera mediku, erizain, aztertzaile eta epidemiologo izatera. Osakidetzak dagoeneko gehiago du Ikeatik osasun sistematik baino. Ospitaleak goraino omen, baina urrian 4.000 osasun-langile sobratu zitzaizkion Jauralaritzari, ondoren jubilatuta eta boluntarioak eskatzeko, eta neurri salbatzaile modura kanpoaldean maskararen erabilera ezartzeko, izara santua balitz bezala.

Orain, datuak, antza, behera doaz —Madrilgo erara positiboak zenbatzeari utzi zaiolako hemen ere, besteak beste— baina bizitza mugaturik dugu oraindik ere. Eta horren aurrean, zurrutorako eskubidea kentzen zaigunean soilik ernegatzen gara. Norbaitek azaldu beharko dit, hortaz, azken bi urteotan arduratsu izan izanaren ardura norena den, errua ez baita nirea izan. ■■■



# "Literatura egiaren antza duen gezur bat da, sorkaria"

FELIPE JUARISTI IDAZLEA

Beti du liburu bat eskuartean Felipe Juaristik, irakurtzeko ez bada idazteko, eta iaz argitaratu zuen bere azken lana, poesiari buruzko *Itzultzeko etorri naiz* saiakera liburua. Idaztea du afizio zein ogibide, eta sorkuntza lanetaz aparte, kazetaritza ere aritu izan da lanean. "Uneoro ikasten" ari dela dio azkoitiarrak. Testua: **Anartz Izagirre**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

**B**aztarikaldan jaio zen Felipe Juaristi (Azkoitia, 1957), eta azken 40 urteetan Donostian du bizilekua, Intxaurren. "Haurtzaro oso polita" igaro zuela dio, eta gogoan ditu Plazaberrin jolasean ibiltzen ziren garaiak: "Orduko kalea ez zen gaur egungo kalea, ez zen kotxerik ibiltzen", dio. Apurka-apurka bere lehen idatziak ontzen hasi zen, eta egun, dozenaka liburu ditu idatziak, genero eta estilo askotarikoak. Argi du, ordea, formak forma, poesia dela egiten duen guztia. **Hainbat arlotan aritu zara, baina esan daiteke, funtsean, idazteagatik zarela ezagun. Noiztik datorkizu hitzekiko duzun pasio hori?** Hortik bizi naiz. 90eko hamarkadan autonomo egitea erabaki nuen, eta ordutik, idaztetik bizi naiz. Gustuko dudana da, eta, gainera,

dirua ematen dit; ez nago kexatzeko moduan. Azkoitian bizi nintzenean, poema mordoa nituen idatzita, azkoitiarrez, gainera, oraindik ez bainengoen alfabetatuta, eta kalean entzuten nuen moduan idazten nuen. Gero, lagun bati-edo utzi nizkion olerki haiek, eta galdu egin ziren. Betidanik asko irakurri izan dut, eta Azkoitiko liburutegira ere asko joan izan naiz; biblioteca ona zen, eta probetxua atera nion. Uste dut bakoitzak norberaren onena eman behar diola gizarteari, eta nire onena literatura da.

**Madrilera joan zinen Informazio Zientziak ikastera. Idazteko grina gehiago piztu al zitzaizun fakultatean?**

Bai. Han ere asko irakurtzen nuen, fakultateko bibliotekan milaka liburu baikenituen. Gero, aspertu egiten nintzenez, Soziologia ikasten hasi nintzen, eta formazioari eskaini nion denbora.





Munduak beti ematen dizu zerbait, eta zuk hartzeko prest egon behar duzu; nik ez dut idazlerik ezagutzen hori egin ez duenik. Ni oraindik ere ikasten ari naiz, eta hil arte horretan jarraituko dut. Ezin duzu esan "dena dakit" edo "dena irakurri dut". Hori gezurra da. Eskuarlean zerbait dudala hil nahi dut, irakurtzen edo idazten. Bestalde, baratzean aritzea ere asko gustatzen zait. Niretzako garrantzitsua da lurra eskuetan duzula sentitzea, eta ez beti airean egotea, gogoeta abstraktuetan. Lurrean ere bizi behar dugu, eta horretarako aukera bat da familia eta baratze bat izatea, eta, bestea, fikzioa; literatura egiaren antza duen gezur bat da, sorkaria, edo ondo kontatutako gezur bat.

**Atzera begira, 1985ean argitaratu zenuen *Denbora, nostalgia* deituriko zure lehen poesia liburua. Nola gogoratzen duzu garai hura?**

Bost urte-edo neramatzan liburu hura hori idazten, eta luze jo zuen. Oraindik ere irakurtzen dut liburua, eta gustura nago. Ondo eutsi dion lana da. 1985ean 28 urte nituen, eta 23 urte izatetik 28 urte izatera badago aldaketa bat, nerabearoa pasatuta helduaroan sartzen ari bainintzen, eta oreka hori ikusten da lanean. Liburu hark markatu egin ninduen, eta hor dago ni naizena.

**Lehen liburuarekin batera, orduantxe heldu zitzaizun lehen saria ere, Espainiako Kritika Saria euskarazko poesiaren arloan. Gehiago idaztera bultzatu al zintuen horrek?**

Bai. Esango nuke sariak garrantzitsuak direla gaztea zarenean, eta gero, ez horrenbeste. Ni garai hartan gaztea nintzen, eta unibertsitatean klaseak ematen nituen. Ondo nengoen, eta denbora nuen irakurtzeko nahiz idazteko, aldizkari bat ateratzen ere hasiak ginen... Zurrumbilo horretan sartuta nengoen. Bultzada da saria jasotzea, zeure buruari esateko: "Baleko liburua da".

**Idazle batek behar al du beste pertsona baten errekonozimendua idazten jarraitzeko?**

Uste dut baietz. Hasiberriak diren idazleentzat oso garrantzitsua da munduak idazle balio hori aitortzea. Zahartzaroan ez, gu kontsagratuak gara, eta orain horrek ez du niretzat horrenbesteko inportantziarik. Iruditzen zait askotan idazle bat galdu egin daitekeela inork ez diolako kasurik egiten, baina gizartea halakoa da, eta gure literatur sistema oso lehiakorra. Literaturan laguntza aurkitzea konplikatu da;

zuk topatu behar duzu laguntza hori. Balea Zuria argialetxean badugu poeta gazteentzako sari bat: lehenbizi norbaitek irakurri egiten du idazle horien lana, ondoren baloratu, eta saria jasotzen duenari liburua argitaratzen zaio. Beraz, bide bat irekitzen du horrek, edo behintzat horretarako aukera ematen du. Okerrena da aukerarik ere ematen ez denean; aukerarik gabe idazleak hil egiten dira, landareak eguzkirik gabe bezala.

**Literaturaren barruan genero batetik bestera jauzika ibili zara. Non sentitzen zara egun erosoan?**


Niretzat idazketa, idazketa da. Nire erara idazten dut, eta hori prosa poetikoa da; nobela bat idazten badut ere, atzean poesia dago. Beraz, egiten dudana guztia poesia dela esan dezaket; lan batzuek nobela baten forma hartuko dute, eta beste batzuek agian gazte literaturako liburu batena. Beste gauza bat da poesia hutsa egiten dudanean; *Denbora, nostalgia* liburua, adibidez, poesia hutsa da, eta *Itzultzeko etorri naiz* poesiari buruzko saiakera. Gogoeta liburu bat da *Itzultzeko etorri naiz*, eta badago Azkoitiari buruzko zati bat ere. Norberak bere estiloa lortu behar du, eta hori urte askotako ariketa da.

**Eta zuk lortu al duzu zure estilo propioa garatzea?**

**"USTE DUT GIZARTEARI BAKOITZAK BERE ONENA EMAN BEHAR DIOLA, ETA NIRE ONENA LITERATURA DA"**

**"BULTZADA BAT DA SARIA JASOTZEA, ZEURE BURUARI ESATEKO: 'BALEKO LIBURUA DA'"**

**"ZEURE BURUAREKIN HITZ EGITEN DUZUN HORI DA ZURE HIZKUNTZA, ETA NIRE HIZKUNTZA EUSKARA DA"**





Bai, eta zorroztu, findu eta laburtu egin dut. Orain ez ditut hain esaldi luzeak egiten, eta idazten dudana zehatzagoa eta argiagoa da. Uste dut artista batek azkenean argia bilatzen duela, eta nik ere hori lortu nahi dut; iruditzen zait horretarako bidean nabilela, eta agian lortuko dut hil aurretik.

**Poesian ikusten zenuten hutsunea betetzeko, Balea Zuria argialetxea sortu zenuten duela urte batzuk. Zer-nolako ibilbidea ari da egiten?**

Konturatu ginen poesia gutxi argitaratzen zela, eta garbi esanda, ez zela errentagarria. Bestetik, ohartu ginen zerbait argitaratzekotan, izena zuten idazleen lanak izaten zirela gehienak. Guk ez genuen zer galdurik, eta jende berria erakartzen saiatu ginen. Horregatik sortu genuen Balea Zuria argialetxea, eta poeta gazteei zuzendutako lehiaketa antolatu genuen Donostia Kulturarekin batera. Dena guk egiten dugu, eta dirua liburu berriak ateratzeko erabiltzen dugu; hori da gure funtzionamendua, ia frantziskotarra. Ez dugu liburu askorik atera ez dugulako dirurik, baina pozik gaude jende berria ezagutarazi dugulako.

**Zure lan guztiak, gehienak ez bada, euskaraz idatzitakoak dira. Erabaki kontziente bat izan al zen?**

Ez. 6 urte bete arte ez nuen gaztelerez hitz egiten, eta kalean nahiz familiarekin euskaraz hitz egiten nuen beti. Amak gaztelerez oso gutxi zekien, eta nire aitak oraindik gutxiago. Idatzi dezaket poesia gaztelerez, baina beste gauza bat da; ez dut esaten hobea edo okerragoa denik, baizik eta desberdina. Nik ez dut identitate arazorik, kontziente naiz poesia euskaraz ateratzen zaidala, eta inoiz ez dut zalantzarik izan gai horren inguruan. Zeure buruarekin hitz egiten duzun hori da zure hizkuntza, eta nirea euskara da.

**Euskal literatura eta irakurzaletasuna osasuntsu ikusten al dituzu gaur egun?**

Euskal literatura datuetan ondo dagoela esango nuke, baina susmoa daukat ez dela asko irakurtzen, eta irakurtzen dena praktikoa da: eskoletan, institutuetan... Ikusi besterik ez dago zeintzuk diren libururik salduenak. Hor ikusten dut arazoa. Orain, geroz eta idazle gehiago daude, baina zer-nolako etekina ateratzen zaio horri? Ez dakit, iruditzen zait badagoela idazleen mundu bat, baina nik irakurleena ez dut ezagutzen.

**Eta hori Euskal Herrian bakarrik pasatzen dela iruditzen al zaizu?**

Ez, leku ugarian pasatzen da. Gaur egungo irakurlea, batez ere, emakumea eta gaztea da, eta irakurtzen diren liburuen kasuan ere gauza bera; gehien irakurtzen diren liburuak emakumeek idatzitakoak dira. Bestalde, liburu errazak eskatzen dira gaur egun, eta guk literaturari eskatzen genion hori galdu egin da. Eta gero kritikaren kontua dago. Lehen bazegoen erreseinak idazteaz arduratzen zen jendea, eta orain ez dago halakorik, noiz edo noiz bai, baina oso gutxi. Kritika fuerte batek egon behar du irakurzaletasuna bultzatzeko. Hein handi batean, kazetaritza hilda dago. Ni lanean hasi nintzenean bizi nintekeen astean bizpahiru zutabe idatzita, eta orain ezinezkoa da hori.

**Kazetaritza egiteko modua etengabe aldatzen ari da, eta zuk, bizi izan duzu bilakaera hori. Nola ikusten duzu egun ofizioa?**

Orain kazetaritza beste gauza bat da. Gaztelerez egiten den kazetaritza botere konkretu baten zerbitzura dagoen aparatua handi bat da, eta euskarazko kazetaritza ere gauza bera gertatzen da. Hor ba al dago ahots kritikorik? Bai, baina gutxi. Gaur egun, soldata ateratzeko gaur egun lan asko egin behar da, lehen beste kontsiderazio bat zegoen.

**Literatura ez ezik, kazetaritza ere izan duzu ogibide urte hauetan guztietan. 2010ean Euskadi Irratiko zuzendari postua hartu zenuen. Erroka handia izan al zen?**

Garai konplikatua izan zen. Saiatu nintzen programazio aldetik-eta aldaketa batzuk egiten, baina batez ere kudeaketa lana izan zen egin nuena, eta horrek jan egiten zaitu. Ez nuen ondo pasatu, eta ez nuen gustuko lana izan. Dena kontra nuen, egiturak eginda daude Euskadi Irratian, eta ni kanpotik nentorren, nahiz eta 80ko hamarkadan han lanean aritu nintzen zenbait urtez. Bakarrik egon nintzen sentsazioa nuen, eta, gainera, Patxi Lopezek murrizketak egin zituen, bost greba izan ziren... Halere, audientzia datu onak izan genituen; halako leku batean sartzen zarenean disfrutatze edo ikasteko sartzen zara, eta nik asko ikasi nuen.

**Argitaratutako lan guztiak eta gero, zer geratzen zaio Felipe Juaristiri idazteko eta sortzeko?**

Gauza asko. Erretiroa hartuko dut, baina ez idaztetik, idazleak beti jarraitzen baitu idazten. Badut azken 30 urteetan hasita dudana Azkoitiari buruzko olerki luze bat, eta ea bukatzen dudana. Ez dut presarik. ■■■

# Negazionismoa



JOSE RAMON ARANBARRI

**A**sko entzuten ari gara *negazionismo* hitza. Honela definitzen du hiztegiak hitz hori: "Zenbait errealitate eta gertaera historiko edo natural garrantzitsu ukatzean datzan jarrera".

Negazionismoa ez da berria, eta negazionista izatea ere ez, negazionismoa beti egon baita. 1663an, Galileo Galilei Inkisizio Santuak kondenatu zuen, Lurra eta planetak eguzkiaren inguruan biraka zenbiltzala esateagatik. Era berean, egun askok ukatzen dute Darwinen eboluzioaren teoria, Holokausto nazia, gizakia ilargira iritsi izana edota Lurra biribila dela; era berean, orain dela urtebete ikusi genuen nola batzuk adierazten zuten elurra plastikoa zela.

Negazionistek patroï bat daukate: zientifikoki frogatutako gertaerak ukatzen dituzte eta erabat egiaztagarri den errealitateari uko egiten diote. Beren artean mailak daude; batzuk oso negazionistak dira eta dena ukatzen dute; beste batzuek, aldiz, "bai, horrela da, baina ez da horrenbesteko" adierazten dute.

Negazionisten artean ikus daitezke lanbide eta profil guztietako gizakiak. Batekoak edo bestekoak, batek edo besteak, bere burua adierazpen askatasunaren eta errebeldiaren adalide izendatzen du, erakundeekiko eta sistemareriko mesfidantza adieraziz. Beraien artean "asmo oneko" jendea dagoela uste dut, pentsatzen duenarekin predikatzen duena; aitzitik, bere interesetarako negazioismaren bandera egiten duten alderdi politiko eta botere-taldeak daudela ere zalantzarik ez dut, horretarako "asmo oneko" jendea erabiliz eta beraiez aprobe txatuz.


Baina ebidentzia zientifikoa ukazina eta burugogorra da, arrazoimenaren eta zientziaren aurkako borrokaren historia amaigabea izango bailitzan aurrerapen berri guztiekin beti kontrako iritzi-korrante bat sortzen bada ere. Pesimista bat ongi informatutako optimista bat dela esaten den bezala, uste dut negazionista bat gaizki informatutako edo informatu gabeko gizaki bat dela. Eta ondo informatuta egoteko, informazio asko baino, kalitate handiko informazioa behar da. Informazio bonbardaketa baten aurrean gaude, eta asimilatzeko gai ez garen uholde informatibo bat daukagu eskuetan; horrek gaizki informatzera eta perzeptzio oker batera eramán gaitzake, kantitate handiko informazioa kalitate eskasekoa bihurtuz.

Mariano Jose de Larra idazleak honako hau idatzi zuen: "Errazagoa da gauzak ukatzea, haien berri izatea baino". Gauzen berri izateak ondo informatzea eskatzen du, eta beraz, ahalegina, analisisa eta hausnarketa eskatzen ditu. Tamalez, uste dut askotan nahiago izaten dela gauzak ukatzea, haien berri izatea baino, hots, nahiago izaten dela informazioaren kantitatea kalitatea baino, eta informazio hori egi borobil bailitzan defendatuz, egiaztagarri den errealitateari uko eginez. ■■■

**TAMALEZ, USTE DUT  
ASKOTAN NAHIAGO  
IZATEN DELA GAUZAK  
UKATZEA, HAIEN BERRI  
IZATEA BAINO**

# AZKOITIAK

*bat gehiago*



**BATU MAXIXATZENEN PROIEKTURA,  
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: [bazkide@ukt.eus](mailto:bazkide@ukt.eus) - 943-81 38 41

# Zakelen uhinetan

Sei urte beteko ditu hilaren 7an 'Zakel zaltuk' saioak. Kontrako Eztarrixeko irratiaren FM emisioa amaituta, podcasten bidea hautatu dute saioekin aurrera jarraitzeko. Azkoitiko historia edo kontakizun historikoa "mastikatuta" ematen jarraitzea da saioan parte hartzen duten lau lagunen asmoa.

Testua: **Andoni Elduairen**.  
Argazkiak: **Andoni Elduairen**  
eta **'Zakel Zaltuk'**.

**Z**akelen *kro-kro* hotsen artean nahasten da Benito Lertxundiren *Euskal pizkundea* abestia. Horrela hasten da azkoitiar asko eta askori belarrian ezaguna egingo zaien sintonia, horrela ekiten baitiete Juan Bautista Mendizabalek (Azkoitia, 1961), Arkaitz Lopezek (Zestoa, 1975), Xabier Arenazak (Azkoitia, 1984) eta Ekaitz Etxezarretak (Azkoitia, 1988) *Zakel zaltuk* saioei. Sei urte beteko dira otsailaren 7an zuzeneko lehen irratsaioa egin zutenetik.

Kontrako Eztarrixeko irratia FM emisioa amaitu duenez, laukoteak podcasten bidez helarazten die azkoitiarrei herriaren historia. Modua aldatu badute ere, laukoteak filosofia bera du: Azkoitiko kontakizun historikoa herritarrei sakonduta eman nahi diete. Arenazak "ordena" ematen dio saioari eta informatika kontuak ere bere gain hartzen ditu; Mendizabalek Azkoitiko kontuak, historia eta datuak mahaigaineratzen ditu; Etxezarretak kontu guztiak mundu mailako historiaren testuinguruan kokatzen ditu; eta Lopez, berriz, gidoilaria da. Azken horrek aukeratzen ditu gaiak, eta hark taldean egin ohi du gero proposamena. Oniritzia jasotakoan, Mendizabalek eta Etxezarretak beren ikerketa lanak hasten dituzte, eta guztia prest dutenean, saioa grabatzeko eguna adosten dute.

Baina nola elkartu zen laukotea? Honela oroitzen du Arenazak saioaren jatorria, berari bururatu baizitzaion ideia: "Behin, *Mozkorra parregarri* opera izan zen Baztartxo antzokian, eta ikuskizunaren amaieran, Juan Bautista agertokira igo zen Juan Inazio Uriari –alkate ohia– buruzko azalpen batzuk ematera, hilberria baitzen orduan. Segituan ohartu nintzen herriaz ezer gutxi nekiela". Izen hura aipatu





orduko piztu zen argia Arenazaren buruan. "Kontrako Eztarrixeko irratiko *Hankak lurrin* irratsaioa martxan zen ordurako, eta beste zerbait egin behar genuela bururatu zitzaidan. Baztartzotik etxera abiatu nintzen, eta bidean Ekaitzekin egin nuen topo. Info 7 Irratiko *Kaleko mobida* saioan aritzen zen hura orduan, eta historialaria izanda, Juan Bautistaren istorioak grabatu behar genituela proposatu nion". Arenazak "zerbait txukuna" egin zezaketen sentsazioa zuen. Mendizabalek, ordea, ez zuen protagonismorik nahi izan, eta hasieran ez zuen proposamena onartu. Gerora, baina, errezelok alde batera utzi eta saioan parte hartzea erabaki zuen.

Arenaza, Etxezarreta eta Mendizabal Matadeixen hasi ziren *Zakel zaltuk* grabatzen; artean Lopez ez zen taldean. Zestoarra irratsaioaren jarraitzaile sutsua zen, eta beste hiru lagunekin kolaboratzen zuen, baina estudiotik kanpo. "*Hankak lurrin* eta *Beltza ta gorrixe* saioak entzuten nituen, baina bikoteak jakinarazi zidan bazegoela Kontrako Eztarrixeko irratian niretzako moduko beste saio bat. Segituan entzun nituen ordura arte grabatuta zituzten saio guztiak". Gero, hizlari izateko aukera eskaini zioten Lopezi. Hasieran zalantzak izan zituen. "Zerbait hauts nezakeela pentsatzen nuen hizlari moduan parte hartzen hasita; eta ez nuen hori nahi". Gero, ordea, aurrera egitea erabaki zuen hark.

#### **Kronologikoki aurrera**

Laurak bata bestearekiko desberdinak dira, eta desberdina dute pentsaera ere. "Badu bere grazia desberdina izateak. Gaurkotasunari buruz mundu ikuspegi bat du bakoitzak, eta uste dut gure saioa aberatsagoa egiten duela horrek. Era berean, desberdinen artean eztabaidatu egin daitekeela nabarmendu nahi dugu; eredu izan nahi dugu horretan", azaldu du Lopezek. Arenazak dio izaten dituztela eztabaidak, baina garbi dutela "haserretzetik oso urrun" daudela. Bestalde, Etxezarretak uste du orain hitz egiten duten moduan solastea "ez litzatekeela posible" izango duela urte batzuk. Azkoitiko historiari ekarpena egin nahi izatea; hori da laukoteak elkarbanatzen duen ideia.



Herriko historia kronologikoki kontaktzen hasi zen hirukotea. Munoaundiri buruz hasi zirenetik, askotariko gaiak izan dituzte hizpide *Zakel zaltuk* saioan: herriko kale izendegia, Iriaun gaztelua, Aste Santua, jaiak, herriko sinboloak, Karlistadak... Herriko hainbat lagun ere elkarriketatu dituzte, horien artean "bereziena" 101 urte dituen Javier Azpitarte *Imuntzo*. Orain, 2022. urtea prestatzen ari dira Matadeiko putzuko lau zakelak. "Aurtengo urtea antolatu nahi dugu, saioak prestatu", azaldu du Etxezarretak. Izan ere, kronologikoki daramaten ibilbideari gertu ikusten diote amaiera. "XX. mendera asko ari gara hurbiltzen, gaur eguna gero eta hurbilago dugu, eta horrela bakoitzaren mundu ikuspegia agerian gelditzeko arriskua dago". Arrazoi hori tarteko, lau lagunak jakitun dira "zerbait desberdina" pentsatzen hasi beharrea direla, eta buruan dituzte gai zehatz batzuen inguruko saio bereziak.

Laukotea "gustura" dago orain arte egin duten ibilbidearekin. "Geure buruari ez diogu ezertarako konpromisorik jartzen. Saiatzen gara hilean behin elkartu eta saio bat grabatzen, baina arrazoi batengatik edo besteagatik ezin bada, ez da ezer gertatzen. Ondo pasatzen ahalegintzen gara; azken finean, terapia moduko zerbaitek da guretzat *Zakel zaltuk*", aitortu du Arenazak. Mendizabalek ere baieztatu du "gustura" daudela beraien saioari jendeak eman dion erantzunarekin. "Lantegietan entzuten gaituzte, garraiolariak ere bai. Batek, adibidez, gure saioa entzunez egin zuen Gironara (Katalunia) bidaiara. Japonian, Australian eta Venezuelan ere entzun izan gaituzte, eta badakit herrikan kanpo bizi diren moja eta fraile azkoitiarrek ere jarraitu izan gaituztela".

2016ko otsailaren 7az geroztik 51 saio egin ditu *Zakel zaltuk* saioak; guztira, 72 orduko grabazioa dute. "Baliteke norbait gu entzuten hainbat orduz egon izana, baina guk gure bizitzako hiru egun oso igaro ditugu hemen sartuta", esan du Arenazak. Egundak Ivoox eta Spotify plataformetan entzun daitezke laukoteak grabatutako saioak. Aurrerantzean ere izango da Matadeiko zakelaren uhinetan sartzeko aukera, asko baitute esateko, asko baitute kontaktzeko. ■■■

Ezkerreko argazkian, Mendizabal, Lopez, Etxezarreta eta Arenaza, Javier Azpitarte *Imuntzo*ekin. Eskuineko argazkian, lau hizlariak Mataidexen.

**"DESBERDINEN ARTEAN EZTABAIDATU DAITEKEELA NABARMENDU NAHI DUGU"**

**"ONDO PASATZEN AHALEGINTZEN GARA; TERAPIA MODUKO ZERBAITEK DA GURETZAT ZAKEL ZALTUK"**



**KATTAGORRI ARTEA**

TALLER ARTISTIKOAK

GUZ ETX ARATZALDEZ: gaste eta lekuak

kattagorriarte@gmail.com

674339988

Zuatzola kalea, 2. Azkoria


# ZERBER

## BURDINDECIA

BEHAR DUZUNERAKO ALDI GUZTIETAKO GAIAK AURKITUKO DITUZU GURE BURDINGIAN. INDUSTRIA, ELEKTRIZITATEA, MARGOLARITZA, ETXEA, ITURGINTZA, BIKOLAJEA ETA ABARREKO TRESNERIA; HALA NOLA, TORLDUJAK, ERRODAMENDUAK, SARRILAK, GILTZAK, ETA ABAR...

**ZERBERREN**  
"ZER BER ETA HURAXE"

NAGUSIA, 39 - 20730 AZKORIA - 638 35 01 25  
www.ferreteriazerber.com




## JARRI HEMEN ZURE IRAGARKIA!

# NON DAGO ZAKELMARI?



Urtarrileko Maxixatzen aldizkarian **Zakelmari** non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 37. orrialdean zegoen ezkutatuta. Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, **Lourdes Jauregi** bazkideari egokitu zaito Herrixen merkataritza elkarteari emandako **50 euroko erosketa bonoa**. Datorren hilean, Ogi Berri okindegiaren zortzi lagunentzako tarta zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna otsailaren 16a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo [erredakzioa@maxixatzen.eus](mailto:erredakzioa@maxixatzen.eus) helbide elektronikora.



*Komertzizko txikiak*  
**herrixen**  
*esentzixe*





10.ZENBAKIA-2022-OTSAILA

# GUKA



LEIRE VENTAS ETA MIKEL AIESTARAN

**BIZIBIDEA  
BAINO GEHIAGO**



**Euskararen plaza gara,**  
herriaren irudia eta  
komunitatearen ahotsa



**HEDABIDEKIN  
ERE BAI**

# ANEKDOTIKOA



**JULENE FRANTZESENA**

11:15ean jarri genuen hitzordua Enparan kalean. Zain geunden, ni pixka bat urduri, Leire han zelako eta Mikel ez zelako ageri. Baina agertu zen; ordurako Twitter bidez abisatuta zegoen 11:30erako iritsiko zela. Aurreko egunetan bero pixka bat eman nion sentipena nuen: konfirmatzeko behin baino gehiagotan idatzi nion, eta berak ere sumatu zuen, nolabait, nire urduritasuna, gauzak azkar ixteko izaten dudana presa. “No, konfiantza handirik ez dizut eman, e”, esan zidan, gutxi gorabehera—ez naiz hitzez hitz gogoratzen—, barre artean, elkartu orduko.

Sartu ginen Basazabalera; bi elkarrizketatuak han sekula izan gabeak ziren. Harrituta gelditu zirela uste dut eraikinarekin. Kanpora atera ginen, Zelai Luze aldeko pasealekuaren ondoko terrazara. Hiru aulki huts, eta Julen Imaz eta Maialen Etxaniz lankideak kameraren atzean. Eseri ginen, eta handik pasatzen ziren herritar gehienek begiratzen zuten, zer suman, zertan ari ote ginen jakin minez. Mikeli zerbait esateko ere aprobetxatu zuen batek edo bestek. Horixe du aurpegi ezaguna izateak.

Horiek elkarrizketaren eguneko bi anekdotatxo baino ez dira, protagonistekin zer ikusia dutenak. Hara joaterako ere izan nituen, baina, beste bi pasadizo. Goizean lagun bati antigeno testa eman nion, Azpeitiko farmazietan ez zegoelako halakorik, denak gastatuta zeudelako. Eman nion portalean testa, eta handik alde egin eta bost minuturako Whatsapppa: “Positibo”. Eta lepo gaineko makina lanean: “Noiz egon nintzen azkenengoz harekin”, “orain elkarrizketa daukat; beno aire zabalean da behinipein”, “orain egon zaite, bada, hamar egun etxean”... Berdin dio zertan ari zaren, zeharka bada ere, beti agertzen da koronabirusa.

Beste anekdota bat da; ez gehiago, ez gutxiago. Aiestaranen eta Ventasen elkarrizketa idatzi eta txukuntzen ari nintzela gertatua. Behin baino gehiagotan aipatu zituzten elkarrizketan “korrespontsal” eta “bidali berezi” hitzak. Korrespontsal banekien berriemala zela eus-

**Ez naiz kameraren aurrean elkarrizketak egiteko zalea, baina azken esperientzia anekdotikoa izan da**

karaz, baina bidali berezi? Zer da bidali berezi? Askotan egiten dudana gisan, Berria.eus-en begiratu nuen “bidali bezeri” sekula erabilitakoak ote ziren, eta hala bazen, aurrera; Berrian nola, GUKAn hala.

Nire harridurarako, baina, Andoni Egaña bertsolariak 2018an idatzitako Berezia artikuluekin egin nuen topo. Garbi zioen hark: “‘Bidali berezia’ esamoldea ez zait inoiz belarrietara gozo sartu. Egia da propio bidalitako berriemala batzuk aski berezi izan daitezkeela, baina hortik guztiei hala deitzera badago tartea. Nahiago nuke ‘propio bidalitakoa’ erabiliko balute”. Tapa; adjudikatuta.

Kontua da elkarrizketa batzuek paperean gelditzen dena baino gehiago ematen dutela, eta horietako bat izan zen Basazabalakoa. Bi pertsona interesgarri, eta haien diskurtsoa ere halakoxea. Aitortuko dizuet: ez naiz kameraren aurrean elkarrizketak egiteko zalea, baina azken esperientzia anekdotikoa izan da; izan ere, sekula ez bezain lasai sentitu nintzen solasaldian. Agian, horregatik izango ditut gogoan elkarrizketaren bueltako hainbeste anekdota. ■

**Argitaratzailea:** Urolako Komunikazio Taldea

**Zuzendaria:** Onintza Lete Arrieta

**Tirada:** 4.700 ale



**Enpresa laguntzailea:**

**DOMUSA**  
T E K N I K

# MUNDUA BIZIMODU

Leire Ventas eta Mikel Aiestaran

**Nazioarteko kazetaritza. Horixe da Mikel Aiestaranek eta Leire Ventasek duten ofizioa, bakoitzak modu batean, bakoitzak beretik. Biek ala biek argi dute kazetaritza bizimodua dela, eta kazetaritzan bakoitzak egindako ibilbideaz, kazetaritzaren funtsaz nahiz gorabeheraz aritu dira hizketan, luze.**

Testua: **Julene Frantzesena**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Batak urteak daramatza Jerusalemen bizi, eta besteak, Londresen. Batak freelance gisa egiten du lan Ekialde Hurbiletik, eta besteak BBCn, hedabide horren Mundua Latinoamerikarako zerbitzuan. Gabonetako oporraldian Azpeitian elkartu ditu GUKA gehigarriak Mikel Aiestaran (Beasain, 1975) eta Leire Ventas (Zarautz, 1981) kazetariak, Basazabal jauregiaren atarian. Etxera itzulitakoan sentitzen den abaroan, eguneroko jardunetik begirada jaso ta hitz egin dute beren lanaz, pasioaz, bizimoduaz. Elkar ezagutzen ez zuten bi pertsona izanagatik, bakoitza beretik, bere esperientziatik, lasai eta patxadaz aritu dira solasean, aurrez elkar ezagutu izan balute bezala.

**Galdera zabal samarra, baina zuen egunerokoari lotutakoa. Zer da kazetaritza zuzentzat?**

**Mikel Aiestaran:** Bizimodu bat da kazetaritza niretzat, baina ez niretzat bakarrik; familia osoarentzat ere bai. Jerusalemera joateko erabakia hartu genuenetik, etxea nire erre-dakzio bihurtu da, eta nire lankideak dira Telmo semea, Ane alaba eta Aloña emaztea. Nire bulegoa logelan dago, zuzenekoak egiteko kokalekua balkoian daukat, editatzeko aretoa ere egongelatik oso gertu dut... Bizimodu bat bilakatu da kazetaritza, eta familia osoak parte hartzen du bizimodu horretan; dagoeneko sei urte pasatu dira hara joan ginenetik. Esperientzia hau izan ondoren, ez dut uste Ane eta Telmo etorkizunean kazetariak izango direnik, baina oso polita eta aberasgarria izan da bizi izan duguna. Kazetaritzak horixe eman dit niri, beste bizimodu bat izateko aukera.



**Leire Ventas:** Bizimodu bat da, eta munduko ogibiderik onena ere bai. Guri ere txoko desberdinak ezagutzeko aukera eman digu kazetaritzak. Era berean, mundua era batera ezagutzeko eta mundua azaltzeko bide bat ere bada kazetaritza. Beste dimentsio bat ere badauka: botereari neurria hartzekoa.

**Urteak daramatzazue ogibide horretan lanean: hedabide batean eta bestean arituak zarete, nazioartera jauzi egiterako. Hasi zinetenetik hona, kazetaritza zertan aldatu dela esango zenukete?**

**L.V.:** Goitik behera aldatu da kazetaritza egiteko modua. Baina kazetaritza bera aldatu da eta ez da aldatu; izan ere, oinarria ez da aldatu, oinarria berbera da. Mundua azaltzeko bidea izaten jarraitzen du kazetaritzak, baina formatuak aldatu dira, bideak ere bai. Duela hamabost urte lan egiten nuen erredakzioan pertsona bat zegoen webguneko lanetarako; papererako egiten zena webgunean sartzen zuen kazetari hark. Hori gaur egun pentsaezina da. Webguneak izaera propioa du, paperak ere bai, sare sozialek berena... Audientzia desberdinak daude, eta zentzu horretan, kazetariok pixka bat orkestra gizon eta emakume bihurtu gara. Hizkuntza desberdinak menderatzen ikasi behar izan dugu, askotariko audientziak buruan izaten eta abar. Kazetaritzaren funtsa, baina, lehengo bera dela uste dut.

**M.A.:** Dena aldatu da, bizimoduak ere bai. Informazioa kontsumitzeko modua aldatu egin da, eta horren atzean gaude gu. Izan ere, ohiturak aldatzen baldin badira, gure lanbidea ere aldatu egingo da. Dena den, egia da kazetaritza funtsean ez dela aldatu. Azpeititik, Londrestik edo Jerusalemek lan egin, gauza bera da kazetaritza. Jazo den aldaketa garrantzitsua teknologiarik lotutakoa izan da, eta horrek irudiaren demokratizazioa ekarri du; gaur egun, eskuko telefono batekin edonon izan daiteke kamerari. Hori ikusi dut Afganistanen edo Iraken; gero eta kamerari gutxiago joaten dira leku horietara, baina edozein bazterretan dago kale kazetaritza edo kazetaritza lokala. Pertsona batek telefono batekin irudiak lortzeko aukera du, eta guk irudi horiek ikusten ditugu etxetik; hori pentsaezina zen lehen.

Aldaketa nagusia, alde batetik, teknologia tarteko etorri da, eta bestaldetik, azkartasunari lotuta ere bai. Dena oso azkarra da orain; lehen ez zegoen arazorik gai bati hilabeteko jarraipena egiteko, patxadaz, gaiak landuz... Gaur egun, ez; gaur egun gai batek lau edo bost egun irauteko...

**Izugarria izan behar du gertatzen ari denak, ezta?**

**M.A.:** Bai, ikusi dugu Afganistanekin zer gertatu zen udan, adibidez. Zergatik izan zuen halako oihartzuna? Sekulako albistea zelako, baina baita uda zelako, futbolik ez zegoelako, bizitza politikoa geldirik zegoelako eta koronabirusaren pandemia pixka bat amaituta zegoela zirudielako ere. Hori bai, nazioarteko albistea izateko, sekulako oihartzuna izan zuen; hiruzpalau astez egon zen punta-puntan. Orain, baina, zer? Hartu edozein egunkari edo piztu telebista, eta Afganistan ez da ezer esaten. Nazioarteko albisteekin hori gertatzen da normalean: bi-hiru egunetan sekulako oihartzuna izaten dute, baina gero berehala isiltzen dira.

**Zuk Leire BBCren Mundua zerbitzuan egiten duzu lan, Latinoamerikarako. Halakorik bizi izan al duzu?**

**L.V.:** Bai. Guk nazioarteko gaiak lantzen ditugu Latinoamerikarako, ez ditugu soilik Latinoamerikako gaiak lantzen. Agenda eta askotariko gaiak -zientzia, osasuna, teknologia, ekonomia...- lantzen ditugu ikus-entzuleak Latinoamerikan daudela pentsatuta eta audientzia horrek zer interes duen kontuan hartuta. Afganistanen gertaturikoa izugarria izan zen guretzat ere. Aste hartan berrogei mila angelu pentsatu genituen albistea lantzeko. Gero, noski, tokian tokiko albisteek ere ematen digute gaiak lantzeko aukera: Txileko hauteskundeak, adibidez, oso interesgarriak izan ziren. Bi muturretako hautagaiak ziren lehian, azken unera arte ez zen argi zeinek irabaziko zuen eta denbora asko igaro genuen gai hori prestatzen. Eraitza ere ona izan zen; interes handia izan zuen. Angelua aipatu dut lehen; izan ere, guk ez ditugu albiste hutsak ematen. Angeluak pentsatzen ditugu: oinarriko galderak zein diren, audientziak zer



Leire Ventas.

**"Mundua era batera ezagutzeko eta mundua azaltzeko bide bat da kazetaritza"**

**"Herri aldizkarietan aritu garenok badakigu zer den baliabide gutxirekin lan egitea"**

**"Errutinak badira, baina inoiz ez dakizu hurrengo egunean zer tokatuko den"**

jakin nahi duen... Horrela lantzen ditugu albisteak.

**Gaur egun, nazioartean ari zarete lanean, nazioarteko kontuez. Asko kostatu al zitzaizuen sorterrria utzi eta fokua aldatzea?**

**M.A.:** Niri, ez. Hastapenetan erredakzio batean aritu nintzen lanean Donostian, baina hura utzi nuenez geroztik, hamar urte igaro nituen motxilarekin herrialdez herrialde, propio bidalitako kazetari bezala. Hori horrela izanik, hurrengo urrats naturala zen berriemaile lanetan aritzea. Beraz, niretzat ez zen erabaki traumatikoa izan; aldaketa handiena izan zen etxeko denok joan ginelako Jerusalemera bizitzera. Izan ere, oso desberdina da bakarrik edo familiarekin egotea. Lan aldetik, asko irabazi dut Jerusalemen: patxada, denbora, ikasteko aukera... Motxilarekin leku batetik bestera zabiltzala, oso polita da bizi duzuna, sekulako oihartzuna duelako egiten duzun lanak; izan ere, gaur Iraken zaude, bihar Afganistanen, gero Pakistanen... Puntu bero batetik bestera mugitzen zara, eta beti potoloak dira albisteak. Baina orain ez, oraingo lana desberdina da:

lasaiagoa. Asko irabazi dut; denbora bereziki, eta familia.

**L.V.:** Ni sorterritik joaterako, etorri egin nintzen sorterrira. Kazetaritza ibilbidea ez nuen hasi Euskal Herrian. Ikasten ari nintzela, Zarauzko *Txaparro* herri aldizkarian egin nuen lan pixka bat, baina gero, El Salvadorko egunkari batean hasi nuen bidea. Handik Mexikora joan nintzen, eta gero itzuli nintzen Euskal Herrira. Tarte horretan, *Berrian* aritu nintzen lehenik, eta *Urola Kostako Hitzan* gero, eta ondoren egin nuen salto Londresera. Traumatikoa ez da izan, egindako ibilbideak badu niretzat zentzua; izan ere, Latinoamerikan hasi nuen bidea eta orain Londrestik Latinoamerikarako egiten dut lan. Bestalde, Mikelen eta nire lana oso desberdinak dira: Mikelek gertaeraren lekutik egiten du lan, eta nik erredakzio batetik. Gainera, azken urteetan editore lanetan ari naiz: sortzen edo idazten baino, erabakiak hartzen laguntzen, eguneko plana egiten, zuzentzen eta editatzen aritzen naiz. Itzaleko lana da pixka bat nirea.

**Nazioarteko kazetaritzan aritu zareten urteetan, zer ikasi duzue?**

**M.A.:** Sekulako aldaketa izan dela azken urteetan. Orain, 46 urterekin bilaka zaitezke erreferente bat, baina lehen ezinezkoa zen hori. Nik oraindik erreferenteak behar ditut, baina lan egiteko modua aldatu egin da; enpresek beste interes batzuk dituzte eta erretiro masiboak izaten dira orain. Normalean, hedabideak seniorrek betetzen dituzten postuak kentzen hasten dira, eta hori asko nabaritu da Ekialde Hurbilean; ni han seniorra naiz jada. Inguruan ditudan kazetariekin alderatuta, zaharrena naiz, eta oso tristea da hori; nik erreferenteak behar ditut oraindik ere.

**L.V.:** Hori egia da, baina aldi berean, belaualdi gazteengandik asko ikasten dugu. Izan ere, horiek Interneteko natiboak dira, sare sozialetakoak, gureak ez ziren kazetaritza egiteko beste modu batzuk erakutsi dizkigute modu naturalean... Alde horretatik, seniorrak gara, baina baditugu beste erreferente batzuk. Nik, batez ere, kazetaritza zerbitzu publikoa dela ikasi dut; hau da, jendearentzat dela. Pandemian oso garbi ikusi da hori, birusari

buruzko albisteak ematerakoan. Berebiziko garrantzia dauka kontaktatzen duzun hori ondo kontrastatzeak, iturri zuzenak bilatzeak, kontrakoak entzuteak, egiaztatzeak... Horrek guztiak berebiziko garrantzia du, eta hori da azken urteetan ikasi dudana.

**Zuk, Leire, hedabide batentzat egiten duzu lan, Erresuma Batuan instituzio bat den hedabide batentzat. Zer da BBCn lan egitea?**

**L.V.:** BBC munduko herrialde guztietan dagoen makinaria erraldoi bat da. Makinaria horrek informazio pila bat sortzen du, leku askotara iristen da, berriemaile sare ikaragarria dauka, baliabide asko ditu... Herri aldizkarietan edo egunkarietan lan egin dugunok badakigu zer den baliabide gutxiarekin lan egitea. BBCren kasuan, kontaktzeko istorio onak baldin badituzu, hori lantzeko baliabideak egon egongo dira. Bestalde, BBCk kazetaritzaren urrezko arauak gogor mantentzen ditu: inpartzialtasuna da guztiaren zutabea; kazetari guztiak horretarako formatzen dituzte, eta hori behin eta berriz errepikatzen dute.

**Mikel, zuk, berriz, urteak daramatzazu hedabide baterako zein besterako lanean, freelance moduan. Nolako da freelance gisa lan egitea? Zer alde on eta txar ditu?**

**M.A.:** Izenak dioen gisan, *free* [libre, ingelesez] naiz; libre naiz erabakiak hartzeko. Adibidez, inork ez dit esaten zenbat denbora egon behar dudan Azpeitian. Zuk kudeatzen duzu zure lana, eta hori da alde politena eta aberasgarriena; hori oso inportantea da. Alde txarrik ez diot oraindik topatu freelance lanari. Egunen batean topatuko diot, baina orain arte oso positiboa izan da esperientzia. Dena den, baldintzak aldatzen joan dira. Gaur egun ez ditugu lehengo baldintzak, baina momentuz, ezin dut gauza txarrik esan; oso pozik nago. Egunen batean BBCtik deitzen badidate, ordea, zergatik ez naiz joango? Agian pentsatu egingo dut, eta beharbada, askatasun hori alde batera utziko dut. Azkenean, erabaki pertsonala da; aukerak izan ditut beste era batera lan egiteko, baina ez zait interesatu. Dena den, etorkizunean, agian, nahiko dut. Freelancea figura bat da, finean; kazetaritzan aritzen den langile autonomo bat naiz, beste autonomo





Mikel Aiestaran.

**"Egunen batean topatuko diot, baina orain ez diot alde txarrik aurkitu freelance lanari"**

**"Sare sozialetan sinesgarritasuna irabaztea oso zaila da, baina berehala gal daiteke"**

**"Lan bizia da gurea, askotan ez zait iruditzen lanean ari naizenik, eta sentipen hori oso ederra da"**

guztiak bezalaxe. Egia dena da beti dagoela segurtasun falta, baina gaur egun, enpresa batean edozein kontratu mota izanda ere, egonkortasuna ez dago bermatuta. Aitzakia handiena horixe da nire kasuan, egonkortasuna, baina ni oso pozik nago lortu ditudan bezeroekin, bai EITBrekin, bai Vocento taldearekin. Azken ia 20 urte daramatzat horiekin lanean, eta ez dut kexarik.

**Duela hilabete batzuk biral egin zen, Leire, BBCrako euskarari buruz egin zenuen erreportaje baten bideoa. Nola hartu zenuen halako oihartzuna izatea?**

**L.V.:** Guztiz harrigarria izan zen. Itzaletako lanetan ari naiz normalean, eta ez nintzen aurpegi publikoa. Gainera, ez naiz Mikel bezain aktiboa sare sozialetan. Bat-batean bideo hura biral egitea harrigarria izan zen, batez ere, BBCk euskarari buruz egindako lan bat zelako. Euskal herritarrentzat ezaguna den gai bati buruzko bideo bat Euskal Herrira iristea eta hainbeste zabaltzea... Denok harritu ginen, baina gustura sentitu nintzen BBCn nire herriaz hitz egiten; ez dago gaizki.



**Zu, berriz, Mikel, aurpegi ezaguna zara. Nola daramazu jendeak ezagutzearen kontua?**

**M.A.:** Gauza bat da futbolearen aurpegi ezaguna izatea, baina gure lanbidea oso-oso pijoa da, ez da sektore masiboa; nazioarteko kazetaritza oso selektiboa da.

**L.V.:** Nitxo bat dela esango nuke.

**M.A.:** Bai, hori da. Dena den, etxera itzultzen naizenean ikusten dudana erantzuna, jendeak gaiak nola jarraitzen dituen, zer galdere egiten dituen... harrigarria da niretzat. Ez dakit beste leku batzuetan hala izango den, baina Euskal Herrian nazioarteko gaiekiko interesa sumatzen dut; bereziki, Palestinaren eta Israelen arteko gatazka oso mediatikoa delako, edo zelako, eta denok daukagulako iritzi bat. Jendea asko inplikatu da. Horren

erakusle da EITBk berriemaile sare bat mantentzea gaur egun. Hori oso arraroa da, Espainiako Estatuko hedabideekin alderatuz gero. Izan ere, gero eta gutxiago gara nazioarteko berriemaileak. Murrizketak egiten, normalean, kanpotik hasten dira, eta gu kanpo-kanpoan gaude. Horregatik, oso-oso bitxia iruditzen zait Euskal Herrian jendeak ematen duen erantzuna ikustea eta ni nazioartean lan egiteagatik ezaguna izatea. Jendea beti errespetuz aritu izan zait hizketan, gainera; ez dut sekula bizi izan esperientzia desatsegini.

**Zein da nazioarteko kazetaritzan daramatzazuen urteetan bizi izan duzuen unerik gogorrena? Eta positiboki gogoangarriena?**

**M.A.:** Une gogorak, pertsonalki, muturreko egoeretan bizitakoak izan dira. Iraken edo Sirian, adibidez, beldur izugarria pasatu dut. Normalean, bizitakoak konturatzen zarenean edo bizitakoa atzean uzten duzunean, pixka bat erlatibizatu egiten duzu, eta beste kontu batekin hasten zara. Baina muturreko egoera batean, bonbardaketa edo tiroketa batean bizitzen duzuna... Barruan zaudenean ez zara konturatzen gertatzen ari denaz, baina denbora pasatzen denean, zera pentsatzen duzu: "A zer nolako eskapada egin dudana". Bestelakoan, oso gogorak izan dira pandemiaren urteak. Niri, normalean, etxetik deitzen didate kezkatuta. Baina pandemia garaian, gu egon gara Euskal Herriarekin kezkatuta Israelen. Izan ere, gu Israelek sortutako kaiolaren barruan sartuta egon gara pandemian, eta txertoak hartzen ari ginen garaian, Euskal Herrian ez zegoen maskararik ere. Oso une arraroa eta zaila izan zen; zuek gaizki pasatzen eta gu zuei begira. Une onak, berriz, bizitako gehienak izan dira. Lan bizia da gurea, eta askotan ez zait iruditzen lanean ari naizenik; sentipen hori oso ederra da. Egunkariko lanak utzi nituenean, pertsona batek esan zidan egunero akordatu nintzela 16:00etan, egunkaria inprentara sartzen zen garaian. Baina ordutik, sekula ez diot erlojuari begiratu 16:00etan; beste txip bat daukat. Egia esan,

egunero bizitako momentuak, istorio desberdinak, bihar zer egingo dudan ez jakitea, datorren astean zer gai aterako den ez jakitea... Hori asko gustatzen zait.

**L.V.:** Hori da gure lanbidearen alde politetako bat. Errutinak badira, baina inoiz ez dakizu hurrengo egunean zer tokatuko den. Plan bat izan dezakezu, baina Afganistanen gertatu zena gertatzen bada, dena hankaz gora jartzen da. Harra piztuta izaten duzu, eta erreakzionatzeko gaitasuna izan behar da.

**Eta beti ikasten aritzekoa, ezta?**

**L.V.:** Bai, bai, eta beti ikasten ari gara. Plataforma berriak, hizkuntzak...

**Azken urteetan sare sozialek indar izugarria hartu dute: horietan zaude edo ez zara existitzen kasik. Bada eztabaida bat, ordea, sare sozialetako *fake newsei*, gezurrei, zaratari... buruzkoa. Kazetariaren lana zein da zurrumbilo horretan?**

**M.A.:** Niretzat lan tresna izugarria dira sare sozialak. Gaur egun Twitter gabe... Niretzat lanaren parte da Twitterren egunean ordu-bete edo bi ordu igarotzea. Noski, komunikabide tradizionaletan bezalaxe, zabor asko dago hor ere. Esan nahi dudana da gaur egun egunkarietan zabor edo gustatzen ez zaidan informazio asko ikusten dudala. Sare sozialak desmitifikatu egin behar dira; niretzat sare sozialak lanerako tresna ez ezik, egindako lana erakusteko tresna ere bilakatu dira. BBC atzean izanda, adibidez, sare bat edo mugimendu bat duzu zure lanak erakusteko. Baina ni bakarrik nago, freelancea naiz, eta oso interesgarria da lanak mugitzeko sare sozialak izatea. Hori bai, kontuz eta ondo egin beharreko lana da sare sozialetakoa; izan ere, sinesgarritasuna irabaztea oso zaila da, baina berehala gal daiteke. Horregatik diot lan tresna bezala hartu behar direla. Oporretan nagoenean, adibidez, Twitter ez dut ukitzen; begiratzen dut tartean behin, baina listo. Guk lantzen ditugun gaiak martetarrak dira: sunien eta xiiten gatazkari buruzko txioak idatzita baino askoz ere jarraitzaile gehiago izango nituzke Realari eta Athletici buruz idatziko banu. Nitxo espezializatuak egin behar dira, landu egin behar dira horiek, eta niri gustatzen



zait jarraitzaileen hazkundea izatea, baina hazkunde horizontala izan dadila, komunitate interesgarri bat sortzeko.

**Zeuk ere informazioa jasotzeko komunitate bat izan dadila, ezta?**

**M.A.:** Hori da. Niri ez zait interesatzen hazkunde ikaragarria izatea, bertikala, taldean zein dagoen jakin gabe. Zentzu horretan oso gustura nago Twitterrekin. Facebookera ez dut hainbeste jotzen, nahiz eta Ekialde Hurbilean ikaragarri erabiltzen den: lanerako, elkarrizketak eskatzeko, baimenak lortzeko... Azkenaldian, ikaragarria izan da, bestalde, Whatsapparen bilakaera. Afganistanera joatean, talibanen baimena Whatsappez jaso nuen. Ez zegoen telefono finkorik, baina Whatsappa bazuten; hori ez sinestekoa izan zen niretzat.

**L.V.:** Saihestezina da sare sozialetan egotea, egon egin behar da horietan. BBC makinaria handia da, baina sare sozialetan egon egin behar du kazetariak. Gainera, audientzia neurtzeko modu bat ere badira; audientziak zer nahi duen ikusteko sare sozialetan egon egin behar duzu. Twitter modu batekoa da, Instagram beste batekoa, eta Youtube ere hor dago bere audientziarekin.

**M.A.:** Youtube masiboa da. Milioika lagun daude han.

**L.V.:** Bai, milioika lagunengana irits gaitzke Youtuberaren bidez, baina BBCn ez dugu Youtuberako informazioa lantzen. Harako azalpen bideoak egiten ditugu, oso ondo funtzionatzen dutelako. Adibidez, zein dira omikronen sintomak? Kazetari bat azalpenak ematen ageri da bideoan, birologo baten informazioarekin. Gisa horretakoek funtzionatzen dute Youtuben. Horiek, baina, ez dute ondo funtzionatzen webgunean edo Twitterren, adibidez. Sare sozialak, beraz, audientziarekin komunikatzeko eta audientzia ezagutzeko bidea ere badira. Lehen, kazetaritza norabide batekoa zen: nik kontatuko dizut zuri zer jakin behar duzun. Orain, ez.

**M.A.:** Bai. Iluntzeko bederatzietan emango dizut informazioa, eta listo. Beti oso formala zen.

**L.V.:** Orain, berriz, ez. Orain jakin egiten dugu jendeari zer interesatzen zaion, gauza bat edo bestea, eta gu horretara moldatzen gara, jendeak jakin nahi duen horretara, beti ere kontuan izanda kontuz landu eta egiaztatu behar dela informazioa... Kazetaritza ja ez da goitik beherakoa, horizontalagoa da orain, eta herritarrek jaso egiten dute informazioa, entzun egiten dute, eta guk jakin egin dezakegu horiek zer nahi duten.

**M.A.:** Bai, eta 24 orduz jasotzen da orain informazioa. Lehen hori ez zen horrela: 15:00etan eta 21:00etan izaten ziren albistegiak, eta denak ordu horietan egoten ziren adi. Orain, 24 orduz dago informaziorako aukera, konektatu eta hor daukazu.

**Informazioa jasotzeko modua ere zeharo aldatu da: papera, Internet, ikus-entzunezkoak... Nola ikusten duzue etorkizuna?**

**L.V.:** Uste dut horri lotuta badela beste kontu bat ere: hori guztia mantenduko duen negozio eredia zein izango den. Deskubritzeko dago hori.

**M.A.:** Hedabideen galderarik potoloena horixe da: nola atera dirua aldaketak datozenean. Papereko euskarria desagertzen bada, nondik aterako dute komunikabideek dirua? Niretzat arazo handia dago horrekin; izan ere, orain hedabideetako egoera kudeatzen ari diren berberak ez zuten arazo hori ikusi bere unean. Espainiako egunkarietan antzeko zuzendariak ikusten ditut azken hogeit urteetan, eta sektorearen krisi larria etorri zenean ere haiek zeuden postu horietan; oraindik hor jarraitzen dute. Gauzak aldatzen ari dira, baina aurpegiak ez dira aldatzen, eta ez dut uste horrela berpiztuko denik sektorea.

**Hainbat hedabidek egin dituzte Interneteko edukiak ordainarazteko saiakerak, baina bere horretan geratu dira... Pixka bat noraezean al dabilta hedabideak diru iturriak lortzeko?**

**L.V.:** Bai, hori da. Ez dago funtzionatu duen eta denok jarraitzeko modukoa den adibide edo eredu bat. Saiatu dira harpidetza bitartez, edukiak itxita, publizitatearekin...

**M.A.:** Dena oso azkar aldatu da, baina hedabide denak etorriko den horri begira daude.

**Azken urteak pandemiak jo ditu goitik behera: urtea hasi berri den honetan, 2022a bukatzerako zer titular eman nahiko zenukete?**

**L.V.:** Pandemia bukatu dela, argi eta garbi.

**M.A.:** Bai, bai, garbi dago hori. Nik okupazioa amaitu dela ere esan nahiko nuke. Hori albiste oso potoloa litzateke nazioarte mailan. Edo Ameriketako Estatu Batuetako tropak Iraketik atera direla... Baina, dudarik gabe, pandemia da orain gai bakarra.

**L.V.:** Bai, ez dut dudarik. Mundu guztiari eragin dio eta eragiten dio. Mundu guztiaren bizitzak aldatu ditu pandemiak, jende askorentzat bizimodua gogorra izan da pandemian... Beraz, bukatu dela izango da albiste nagusia, nik titular horren aldeko apustua egiten dut.

**M.A.:** Amaitu arte, hor egongo da pandemia une oro, eta beste gai guztiak eklipsatuko ditu.



Tartean behin izango dira Afganistangoa bezalako albisteak, baina atzean beti egongo da bitxoa gure zain, eta hori izango da albistea. Ez dut uste 2022an pandemia amaitutzat-amaitutzat emateko aukerarik izango dugunik, baina, dudarik gabe, datozen hilabeteetan ere gai bakarra izango da pandemia gurean.

**Ezer berririk ez, ezta, azken bi urte hauek ikusita?**

**M.A.:** Hori da, bai. Beste fase batean sartuko gara, helduko dira aldaera desberdinak, baina... Gainera, gai globala da.

**L.V.:** Bai, horrek erakutsi du zeinen konektatuta dagoen mundu guztia; ikusi da leku batean

gertatzen denak beste batean zer eragin duen. ■



Ikusi eksklusiban Leire Ventas eta Mikel Aiestarani egindako elkarrizketa QR kodea eskaneatuta.



**Desnibela** 125 m  
**Zailtasuna** ●●●●●  
**Luzera** 6 km  
**Denbora** 1 ordu eta 20 minutu

**Erreferentziak**  
**0.00** Aratz Erreka auzoa  
**0.10** Bidegurutzea  
**0.25** Arlizeta Beherkoa baserria  
**0.45** Arlizeta baserria (ur jauzia)  
**1.20** Aratz Erreka auzoa



## BARRUKALDEKO ALTGORRAK

### MIREIA GALARZA BASTIDA

Urola bailaran dagoeneko jakina da zeintzuk diren herrigune handienak, baita horien inguruan dauden mendiak ere. Hala ere, mapari hauts pixka bat kendu eta bertan aztertu eta sakonduz gero, inguruko auzo txikiekin topo egingo dute eskualdeko herritarrek. Inguru horietako bat da Aratz Erreka, Azpeitiko auzoa. Urrestilatik lau bat kilometrora dago, eta Azpeititik bederatzi kilometro ingurura.

Ibilbidea Aratz Errekako erdigunean hasten eta amaitzen da, San Isidro eliza dagoen lekuan. Autoa bertan utzi beharko dute herritarrek, eta kontuz-kontuz, Urrestilara doan errepidetik joan, bidegurutze batekin topo egin arte. Ibaia gurutzatuz, eskubira hartu behar da leku horretan, eta baserri zahar bat atzean utzita, aurrera jarraitu behar da ondoren. Bideari segika, eta Gorri ibaiaren paraleloan, Arlizeta Behekoa baserria izango da hurrengo geldialdia. Azkenengoa, berriz, ur jauzi eder bat izango da, hain zuzen, Arlizeta baserriaren ondoan geratzen dena. Itzultzeko bide bera erabili beharko dute mendizaleek, beraz, ez dago galtzeko arriskurik.

Zalantzarik gabe, lasaitasuna da herritarrek Aratz Errekan topatuko duten onena. Halaber, ibilbidea igandetan egiten dutenek elizaren alboan dagoen jatetxea ere zabalik topatuko dute. Txikia izanda ere, parkea eta frontoia ere badaude Aratz Errekan, beraz, ibilbidea egin

eta etxeko txikienek jolasteko aukera izango dute bertan, planari amaiera eman eta etxera itzuli aurretik.

### Motzean

#### Lau geldialdi

- Aratz Errekako erdigunea
- Bidegurutzea
- Arlizeta Behekoa
- Arlizeta eta ur-jauzia

#### Nola iritsi

- Autoz: Ez dago Aratz Errekara iristen den autobusik. Aproposena autoz joatea da, edo motoan, herrigunean bertan aparkatzeko aukera baitago. ■



Ikusi eskusiban Xabat Olaizola eta Guillermo Segurola txangoan, QR kodea eskaneatuta.



**TELEBISTAN ERE**

**GUKA!**

erto





# Objektibotik begirada

**IÑAKI GARCIA** ARGAZKILARIA ETA PUBLIZISTA

Iñaki Garcia argazkilaritzaz urte asko maiteminduta daramatzen azkoitiarra da. Taberna batean zerbitzari lanetan hasi zuen ibilbidea, baina betidanik izan du argazkilaritzarekiko grina. Azken 36 urteetan, publizitate eta argazkilaritza lanak modu profesionalean uztartzen ditu Garciak. Testua eta argazkia: **Saioa Murua**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**.

Iñaki Garcia argazkilaria eta publizista azkoitiarra da, eta horretara eskaintzen du bizitza. Azkoitian jaio bazen ere, argazkilaritzari esker asko bidaiatu izan du, eta alor horretako espezialitate ugari probatu ditu. Unibertsitateko irakasle gisa ere aritu zen argazkilaritza eskolak ematen, baina laster ohartu zen bere pasioa benetan konpartitzen zuen jendea inguruan edukitzea zela, ez zuela mugatu nahi argazkiak ateratzera eta horiek errebelatzera.

Garciak argazkilaritzaz hitz egiten duenean, gogoratzen du zaletasun gisa hasi zela lan horretan. Oraindik lanean jarraitzen du, baina zaletasunaz haratago, benetan bizi duen zerbait dela azpimarratu du. Hala ere, umea zenean galdetzen ziotenean heldutan zer izan nahi zuen, argazkilaria izatea "inoiz" ez zukeela erantzungo adierazi du. "Argazkilaritza gogoko nuen arren, inola ere ez nukeen imajinatuko mundu honetan profesionalki aritzera iritsiko nintzenik". Gainera, arte horrekiko duen pasioaren jatorriaz hitz egitean, 12 urterekin zerbitzari lanetan ari zela ezagutu zuen sukaldari batez oroitzen da Garcia:

"Guillermo sukaldariak transmititu zidan argazkilaritzarekiko sentipena, baita gure tabernara bazkaltzera etortzen ziren argazkilaria handiek ere, besteak beste, On Inazio apaizak". Argazkilaritzaren barneko estilo guztiak arakatu ditu azkoitiarrak, eta horretarako, bidaiatzea behar-beharrezkoa dela dio: "Tabernara etortzen ziren argazkilariek erakutsitakoaz gain, Espainia guztian zehar, Suitzan... ibili naiz argazkilaritzaren mundua sakonago ezagutzen".

Objektiboei loturiko mundura profesionalki salto egiteko momentuaz hitz egitean, Garciak dio gustuko zer zuen pentsatzen jarri zela: "14 urte nituenean, garai hartan *El Diario Vasco* egunkari berriemaile zen Sodupe egunkari horretarako argazkiak ateratzea eskaini zidan, eta une horretan ohartu nintzen argazkiak egitea zela nahi nuena". Benetan gustatzen zitzaionarekin jarraitzeko erabakia hartuta, ordura arte egiten zuena publizitatearen alorrekin uztartzea erabaki zuen, eta gaur egun, azken hori da bere enpresaren iturri nagusia. Gainera, inguruko enpresa handiekin egin izan du lan: "Makina-erremintaren sektorea oso indartsua





da hemen, eta batez ere horretan espezializatzea erabaki nuen; hain zuzen ere, inguruan oso indartsuak diren enprekin lan egiteko atak ireki dizkit erabakiak".

Teknologiaren aurrerapenak ere eman du zeresana argazkilaritzaren munduan. Hala eta guztiz ere, Garciak tinko heldu dio argazkilaritza tradizionalari. "Gaur egun, edonork egin dezake argazki bat eta mugikorrean gorde, baina argazkilaritza doan abiaduraren eraginez, argazki bat formatuz eta mugikorrez aldatu ezean, galdu egingo dugu. Argazki album tradizionalak, aldiz, belaunaldiz belaunaldi irekitzen eta begirutzen jarraitzen dugu". Aurrerapenak aurrerapen, Garciak adierazi du Gipuzkoako argazkilari guztientzat modu tradizionalan errebelatzen jarraitzen duela. "Gipuzkoa osoko argazkilariei karreteak errebelatzen jarraitzen dugu, eta hori argazkilaritza tradizionalari lotuta jarraitzeko modu gisa ulertzen dut". Hala eta guztiz ere, gaur egungo kamarek ateratzen dituzten argazkiei eta horien tamainari eta pisuari dagokienez, sistema berriek lana hein batean erraztu egin dutela azaldu du. Kasu horretan, bezeroei lana eman aurretik egin beharreko prestakuntza garrantzitsua dela dio argazkilariak: "Gaur egungo kamarek wifia duten arren,

publizitaterako argazkiek pisu handia izaten dute, eta horrek beste prestakuntza bat ematea eta tratamendu bat izatea eskatzen du".

### Herrian eskertuta

Azkoitiarraren nahia izan da herriko argazkilari soil bat izateaz haratago iristea, baina herrian izan duen harreraz esker oneko azaldu da: "Nire nahiak edo ametsak bestelakoak baziren ere, publizitateak eta herri zoragarri honek eman didan guztiak oso zorionsu egin naute". Hain zuzen ere, Azkoitian "herri sen handia" dagoela eta herritarren laguntza zein sostengua sarri

### Iñaki Garcia

- **Adina:** 61 urte.
- **Lanbidea:** Argazkilaria eta publizista.
- **Argazkilaria ez banintz...** jendearekin hartu-emanen egotea ahalbidetuko lidakeen beste lanbide bat izango nuke.
- **Erretiroaren ostean...** argazki kamera bati lotuta jarraituko dudala uste dut, zorte piska batekin munduan zehar bidaiatuz.

sentitu dituela adierazi du hark. "Herrian aurkitu dudan jendeari zertxobait eskertzeko eta itzultzeko asmoz, nire lanean herriko gazteei aukerak emateko joera dut", gaineratu du.

45 urteko jardunaren ostean, argazkilaritzaren, eta batez ere, publizitatearen mundua oso ongi ezagutzen ditu Garciak, eta urteak igarota, edertasun-kanonak izan duen bilakaera ere ondo ezagutzen du: "Ez dago pertsona itsusirik, eta kontrakoa dioenak, gezurra dio. Gaur egun, dena egokitzen da, baina denok dugu zerbait". Garrantzitsuena guztiok dugun "zerbait hori" argazkian islatzeko gaitasuna izatea dela dio Garciak, baina hori ez da zori kontua izaten: "Argiekin eta objektiboekin jolasten jakin behar da zenbaitetan, ez baita gauza bera haur bati edo pertsona heldu bati argazkia ateratzea". Bere ibilbide profesional luzeak ere milaka anekdota eman dizkio azkoitiarrari: "Oroitzen dut bezero batek antolatutako argazki sesio batera agertu nintzenean, hark aukeratu zuen modeloa ez zela aurrez ikusitako argazkietan agertzen zen modukoa. Beraz, sesio guztia egokitu behar izan genuen; egia esan, behin baino gehiagotan gertatu zait hori".

#### Espezialitate bakoitzeko erreferente bana

Aurrez aipatu bezala, herriko industriari ere oso lotuta egon da azkoitiarra, eta hori izan da makina-erremintan espezializatzearen arrazoi nagusia. Dena den, argazkilaritzari esker ere asko bidaiatu du azkoitiarrak: "Moda argazkiak egin ditut Bartzelonan, Erresuma Batuan..." Hain

zuzen, Garciak argi eta garbi dio argazkilaritzaren munduan lekua egin nahi duenak beharrezkoa duela bidaiatzea eta erreferenteak aurkitzea: "Oso garrantzitsua da besteen lanak ezagutzea eta zure estiloa finkatzeko gaitasuna lantzea. Izan ere, espezialitate bakoitzean argazkilari erreferenteak izateak asko errazten du lana". Horrez gain, beharrezkoa da argazkilaritzaren oinarriko ezagutzak eta arauak barneratzea: "Argazkiak matematika bezalakoak dira, pertsona talde bati argazki bat egiterakoan ezin duzu nahi duzun bezala jarri; arau batzuk daude, eta errespetatu egin behar dira".

Garciak etengabeko formakuntzari ere berebiziko garrantzia eman ohi dio. "Oso-oso gustuko dut ikasten jarraitzea, argazkilaritzan alor bakoitza mundu bat baita". Horrez gain, alor horretan dituen lagunengandik jaso duen jakintza ere azpimarratu izan nahi du Garciak: "Esker oneko nago argazkilaritzak eta publizitateak eman dizkidaten lagunengatik, haiengandik jakintza handia jaso baitut". Argazkilaritza oso gustuko duen arren, irudiaren munduan publizitateak ireki dizkio ate gehientsuenak: "Une honetan, publizitaterako bideo asko egiten ari naiz". Hala eta guztiz ere, arte horren barnean Garciak duen ametsik handiena zineman aritzea dela jakinarazi du: "Gauza asko ditut oraindik irudiaren munduan egiteko, baina betidanik izan dudana ametsa zineman murgiltzea da, argazki zuzendari gisa edo". ■

**GARAJE**

# AXIRI

**MARKA GUZTIETAKO AUTOAK  
KONPONTZEN DITUGU**

**Asteheneretik ostiralera:  
08:30-12:30 / 14:30-19:00**

**Larunbatean itxita**

*Classic*

San Joan, Axiri 13  
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)

Tel. 943-85 04 11 - 674 09 19 62

**OSKAR BERNAL GOMEZ**  
tailleraxiri@gmail.com






# Sudokua

Nola esaten diozu ondoko munstro handi hani, HERENSUGE ala DRAGOI? Egia esanda, blak dira onak, baina bigarrenak, sei hizki dituenaz, sudoku honetarako aitzakia eman digu. Beraz, bete itzazu hutsuneak DRAGOI hitza osatzen duten hizkiez (D, R, A, G, O eta I). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzean.


			O		
	O		R	G	
			G		O
	A			D	
D		O			G
	R		D		

## Margotu




## Zortziko txikia

Aurki itzazu hiru neska-mutilen eta haien isiaeren artean dauden aldeak. Zortzi dira guztira.



## DOMINOAN

Txanogorritxoren dominoak sei elementu hauek ditu: Amonaren etxola, ehiztariaren eskapeta, saskia, otsoa, basoa eta Txanogorritxo. Aipatutako elementuak marraztuz, bete itzazu hutsuneak domino zatiak zentzua izan dezan.





Hona hemen Maripurtzil eta Pelloziri etsez eta Txanagorritxoaz mazonrotuta, hurrenez hurren. Aurki ezazu itzal zuzena, eta bide batez, margo itzazu gure bi lagun bihurriak.



Bide batez, eman kolorea irudi hauei ere.

**Mezua** Konturatuta zinen bezela, arrietako jolasen gaiak liburu oso ezagunetatik hartuak dira. Hemen ezkutuan dagoena ere istario ospetsu baten izenburua da, eta Mariasun Landak idatzia da. Jarri marrazki bakoitzaren azpian bere hizkia eta agertuko zaizu. Erabili irudi-alfabetoa.



# Xipri Larrañaga musikaria, besteak beste, Los Xey taldean

**TESTUA:** NEREA URANGA

*La vaca lechera, Maite, Menudo menu...* Abesti entzutetsu asko egin zituen orain dela sei hamarkada bere jarduna utzi zuen Los Xey taldeak. 1941. urtean Donostian sortu zuten musika talde hura Easo abesbatzako sei kidek: Victor Garciak, Guillermo Lazkanok, Txomin Arrasatek, Xabier Olaskoagak, Alfredo *Txiki* Lahuertak eta Pepito Iantzik. Urte batzuren ondoren, kide batek edo bestek taldea utzi zuen, eta beste batzuek hartu zuten haien lekua. Besteak beste, Arrasateren tokian Xipri Larrañaga (Azkoitia, 1918-Gasteiz, 2010) musikaria batu zen taldera. Larrañaga arduratu zen taldearen musika zuzendaritzaz, abestien moldaketez eta garai hartan oso ezagunak egin ziren irratirako hainbat iragarki egiteaz.

Los Xeyk ibilbide oparoa izan zuen, eta Euskal Herritik kanpo, Espainian, Katalunian, Frantzian, Alemanian nahiz Amerikako hainbat herrialdetan (Estatu Batuetan, Argentinan, Txilen, Kuban, Venezuelan eta Mexikon) ibili ziren, arrakastaz arrakasta. Hainbat disko ere grabatu zituen taldeak: *El reloj del abuelo, Jalisco nunca pierde* eta *Los de Amaika*, esaterako. Baita filmetan parte hartu ere: *Historias de la radio* (J.L. Saenz de Heredia, 1955) eta *Habanera* (J.M. Elorrieta, 1959).

Los Xey taldean hasi aurretik, musikan bere ibilbidea eginda zuen Larrañagak. Haurra zela hasi zen abesten, eta bizitza osoa eskaini zion musikari. Miel A. Elustondo kazetariak *Berria* egunkariko *Zozoen elea* sortarako egingdako artikuluan (2010eko abuztuaren 15ean argitaratua) jaso zuen azkoitiarraren kontakizuna. Larrañaga triplea izan zen Azkoitiko parrokiako koruan, eta bertan ikasi zuen solfeoa, "garai hartako organistaren ondoan". Klarineta ere jotzen zuen herriko bandan. "Solfeatzen ondo ikasi nuen eta horrek salbatu nau ni. Inork ez zidan erakutsi", azaldu zion hark Elustondori.

Komertzio ikasketak egin zituen Azkoitian, eta 1940an Donostian hasi zen lanean, banketxe batean. Sei urte geroago, Easo abesbatzan sartu zen, eta sokakoen buru izendatu zuten. Abesbatza hartako jardunari esker, Euskal Herritik kanpo irteteko aukera sortu zitzaion Larrañagari: 1948an, Guridiren *Mirentxu* operan kantatu zuen Madrilan, eta 1949an, Europako Koruen lehiaketan parte hartu zuen Galesen, baita lehen saria

**HAURRA ZELA TRIPLEA  
IZAN ZEN AZKOITIKO  
PARROKIAKO KORUAN,  
ETA KLARINETEA ERE  
JOTZEN ZUEN BANDAN**

etxeratu ere. Sasoi hartan, Amaya taldea eta Ereintza zortzikotea osatu zituen musikari azkoitiarrak. 1953an Amayarekin Bilbo-Lisboa-New York-Habana-Veracruz bira artistikoa egin zuen. Urte hartan bertan, boskoteak Habanan diskoa ere grabatu zuen. Arrakasta izan zuten biran, baina taldea desegitea erabaki zuten laster.

Amaya taldea desegin ondoren batu zen Los Xeyra Larrañaga, 1954an; musika taldearen hitzen eta musikaren ardura hartu zuen. Hala kontatzen du *Berriako* artikuluan: "Los Xeykoekin hasi nintzenez, kantatu, konponketak egin eta erakutsi egiten nien. Pepito Iantzi, konparazio baterako, ona zen soinua jotzen, baina ez zen erakustailea. Nik pianoa jotzen ez dakit, baina akordeak pianoan nola zuzen eraman ere erakutsi nien. Banekien zein akorde behar zen!".

1961ean Los Xey taldea bertan behera utzi zuten, eta Los Contrapuntos (Kontrapuntoak, euskarazko abestien disko batzuetan) taldearentzat moldaketak egiten hasi zen. Talde hartako kideetako bat zen Luis Iriondo (Azkoitia, 1931-2017) herrikidea. Iriondoz gainera, Miguel Mari Azpiazuk, Jesus Mari Larrañagak, Pilar Forcadak eta Gonzalo Zubizarretak osatzen zuten Azkoitiko musika talde hura.





Xipri Larrañaga, 2008. urtean Gasteizen. ZALDI ERO



Goiko irudian, Los Xeyri buruzko dokumentalaren filmaketa, Mexikon. Behean, taldearen argazki bat. SINCRO EKOIZTETXEA ETA MAXIXATZEN

Los Xeyren agurreko biran parte hartu zuten Los Contrapuntosekoek, eta funtzio haiek izan zuten arrakastaren berri kontatu zuen Iriondok, Imanol Murua Uria kazetariak *Jakin* (200. zenbakia, 2014) aldizkarirako egindako elkarrizketan. Hala zioen Iriondok: "Aste osoa egin genuen Principe aretoan [Donostia] Los Xeykoekin. Orduan, Euskadi osoan bira bat egitea erabaki zuten, eta gu haiekin. Hiru hilabetean ibili ginen: Los Xey, Pello Kirten, dantzari batzuk eta gu. Herriz herri, Euskal Herri osoan".

Los Xey taldearen ibilia bukatuta, Miranda de Ebron (Burgos, Espainia) garagardo banatzaile batentzat jardun zuen lanean hilabete batzuetan, eta ondoren, 1963an, Gasteiz hartu zuen bizileku Larrañagak. Arabako hiriburuan Mendira begira zortzikotearekin jarri zen harremanetan. Gerora, berriz, Gallur taldearentzako moldaketa lanak egiten ere jardun zuen, eta hainbat diskotan azkoitiarraren piezak jaso zituzten, besteak beste, *Gasteiz, Egizko anaitasuna, Egun aundia* eta *Guztiok berdinak*. Mirandes orfeoaren eta La Jarana elkarte

abesbatzaren zuzendari ere aritu zen. Bere musikari ibilbidean hainbat sari ere eskuratu zituen Larrañagak: Iruñean, Gasteizen, Donapaleun, Miranda de Ebron...

Musika, euskara eta giza eskubideak oinarri zituela aritu zela kontatu zion Larrañagak Elustondori: "Nik musika ibiltzen nuen buruan, beti musika, eta beti euskaraz. Nire konposizio guztietan giza eskubideak defenditzen eta euskararen alde egiten saiatzen nintzen".

#### **Los Xey, pantaila handira**

Larrañaga parte izan zen Los Xey taldeari buruzko ikus-entzunezkoa egiten ari da Sincro ekoiztetxea, eta aurrean estreinatzeko asmoa dute. Eneko Olasagasti da dokumentalaren zuzendaria eta gidoilaria, eta David Berraondo ekoizlea.

Dokumentalak sorburua Lesakako Udalak (Nafarroa) Pepito Iantziari egin zion omenaldian du. Hala azaldu du Olasagastik: "Omenaldi hartara Golden Apple Quartet-ekoak gonbidatu zituzten, Xabi Zabala musikari zarauztarrak proposatuta. Behin, Donostiako

Musika Eskolaren atarian, topo egin nuen Zabalarekin eta Golden Apple Quarteteko Loyola Garmendiarekin, eta proiektua azaldu zidaten. Horren berri jakindakoan, Sincro produkzio etxeko David Berraondori deitu nion, eta dokumental bat egiteko aukera zegoela azaldu nion; nire ezusterako, Berraondo Los Xeyko Txiki Lahuertaren iloba da. Era berean, Goldenekoek ikuskizunaren zuzendaritza eskaini zidaten. Bi urte baino gehiago dira proiektu honekin hasi ginela, eta dokumentazio lan handia egin dugu".

Euskal Herriko hainbat tokitan, Madrilan, Bartzelonan, Argentinan, Kuban, Mexikon ibili dira filmatzen, eta orain dokumentala editatzen ari dira. Elkarrizketa ugari egin dituzte, eta tartean, Larrañagaren alabetako batekin hitz egin dute, Olasagastiren esanetan: "Izugarritzko historia izan zuen Los Xey taldeak, Amerika osoan ibili ziren". Dokumentalaren bi bertsio egingo dituztela azaldu du zuzendariak: "Bertsio luze bat egingo dugu zinemarako, eta laburragoa, telebistarako. Izan ere, ekoizpenaren partaide dira Euskal Telebista eta Espainiako Telebista". ■

# BETI ZUREKIN GIPUZKOA

943 903 450

Bertako Igoailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua. Solbuespenik gabe.



GIPUZKOA



GIPUZKOA



GIPUZKOA



bertako

www.bertako.eus



# Jimena Cardoso: "Azkoitian elkar zaintzeko kultura dago"

**TESTUA:** NEREA URANGA

**ARGAZKIA:** ANDONI ELDUJAEN

"Hamalau urte dira Azkoitian bizi naizela, eta dagoeneko bihotza azkoitiarra daukat, hizkera da Mexikotik galdu ez dudana gauza bakarra", dio Jimena Cardoso (Mexiko Hiria, 1981). Abaraxka aterpetxean egiten du lana, sukaldetan nahiz beste hainbat zereginetan aritzen da: "Lantalde bat gara, eta ahal dugun guztia egiten dugu".

Tokiko eta garaian garaiko jakiak prestatzea atsegin du Cardoso. Lanean baino, etxean gehiago jotzen du Mexikoko sukaldaritzara. "Aterpetxean kontu gehiago edukitzen dut jakiak prestatzerakoan; etxean, ordea, pikante, belar eta landare lurrintsu asko erabiltzen ditut sukaldetan. Artarina ere asko erabiltzen dut tortillak egiteko. Jaki horiek Mexikoko sukaldaritzan oinarritutakoak dira; hemengo taloak bezalakoak dira, baina txikiagoak".

"Askotarikoa" da Mexikoko sukaldaritzaren: "Belar eta barazkien aukera handia daukagu. Esaterako, Mexikon era askotako tomateak –han *jitomateak* esaten diegu– daude, eta horiek edozein tokitan hazten dira. Hemen, ordea, tomate ederra ateratzea zaila da, asko zaindu behar da. Mexikoko sukaldaritzak aintzinasuna dauka, ondarea

da". Mexikoko aberastasunaren aldean, gauza ederrak ditu Euskal Herriko sukaldaritzak, Cardosoaren arabera: "Euskal jatekoa oso nutritiboa da, eta ondo jaten ikasten da hemen. Mexikon ondo jaten ez denik ez dut esan nahi, desberdina baita, baina hemen goxoa da jaten dena, garbia, osasuntsua. Gainera, jatekoa oso gertu ekoitzi dezakegu, eta hori oso garrantzitsua da".

Cardosori Euskal Herriko jakietatik gehien gustatzen zaizkionak txahal masailak eta txapiroak tintan dira. "Mexikon ere badago plater bat marroi kolorekoa, baina ez da txapiroak tintan bezain beltza. Euskal Herrira etorri eta ikusi nituenean pentsatu nuen: 'Uau, zer gauza arraroa!'. Baina oso goxoak daude! Kroketa ere zoragarriak iruditzen zaizkit; gainera, kroketen errezetarekin jaki ugari prestatu daitezke. Noiz edo noiz Azkoitiko jateko tipikoa zein den galdetu izan dut, eta inor ez da gai izan erantzuteko. Uste dut hemengo janari oso tipikoak direla porru patatak, baba gorriak... Oso gozoak eta etxetik gertu erein ditzakegun elikagai ederrak dira horiek", esan du Azkoitiko bizilagunak. Baratzetan jardutea oso gustuko du Cardoso, elikagaiak zaintzea balio handiko lana delako haren ustez. "Era horretan badakizu jateko edota elikagai horrek zer nolako lana

duen, zein den bere benetako balioa".

Azkoitia gustuko du Cardoso: "Jendearen zintzotasuna, zuzentasuna eta albokoari dion errespetua gustuko ditut. Azkoitian badago elkar zaintzeko kultura hori. Ni beste leku batetik nator, eta gauzak erabat bestelakoak dira han. Ez dut asko bidaiatu, baina hemengo solidaritate hori ez dut uste toki askotan egongo denik. Euskal Herriaren bihotzean gaude Azkoitian, eta erabat euskaraz bizi daitekeen herri batean bizi gara; hori zoragarria da. Horregatik guztiagatik gelditu nintzen hemen bizitzen, beste inon ez dudalako aurkituko horrelako paradisurik". Cardosoaren ustez, Azkoitiak argilunak ditu, baina alde ilunak ez dira argien gainetik nabarmentzekoak: "Azkoitian jendeak elkarren zuhaitz genealogiko osoa ezagutzen du. Etorri nintzenean horrek izugarri harritu ninduen, eta pentsatu nuen: 'Ei, hemen behatz bakar bat mugituz gero, berehala daki herri osoak!'. Cardoso "bihotzak" hala esaten dio: "Zoriontsuak izan behar dugu, gehiago gozatuz daukagunaz. Askotan pentsatu izan dut herri hau ederregia dela benetakoa izateko; beraz, zaindu dezagun gure ondorengoek ere denbora luzean horrela bizitzeko aukera izan dezaten". ■



## Azalorea gaztarekin betea, saltsa gorrian

### Osagaiak

- Ardi gazta, 150 gramo
- Azalorea
- Irina, 50 gramo
- Hiru arrautza
- Olio

### Saltsarentzako

- Olio
- Gatza
- Tipula
- Azenarioa
- Sagarra
- Baratxuria
- Tomatea

### Prestaketa

- Azalorea moztu behar da sortaka, eta sorta bakoitza bi zatitan moztu.
- Ardi gazta xaflatan moztuko dugu.
- Azalora sorta bakoitzaren erdian gazta ipiniko dugu, eta bi zatiak zotz batekin lotuko ditugu.
- Arrautzak puskatu ondoren, zuringoak eta gorringoak banatuko ditugu. Zuringoak harrotuko ditugu, elur-puntua lortu arte. Segidan, gorringoak erantsi eta dena nahastuko dugu.
- Gaztaz betetako azalora zatiak irinetatik pasatuko ditugu banan-banan, eta ondoren, arrautzetatik. Behin hori egindakoa, zartagin batean frijituko ditugu.
- Saltsa egiteko, beste ontzi batean, oliotan bigunduko ditugu tipula, azenarioa eta sagarra. Gero, tomatea erantsiko diogu, baita gatz pixka bat ere. Ondoren, ura edota soberan izan dezakegun salda erantsiko diogu barazkiei. Sutan eduki ondoren, irabiatu egingo dugu. Saltsak saldatsua izan behar du, eta bertara gehituko ditugu frijitutako azalora zatiak. Egosten utziko ditugu saltsan. Egosita daudenean jateko prest izango dugu.
- Arrozarekin edota babarrunekin lagundu daiteke saltsan prestatutako azalorea.

On egin!



# Erlezaintza du pasio

Erleen munduan murgilduta bizi da Joseba Epelde azkoitiarra. Duela 12 bat urte hasi zen horiek zaintzen eta hazten, eta ordutik, bere zaletasun nagusi bihurtu da. Munoaundira bideko sail batean hazten ditu intsektu horiek, eta erlezainaren zereginaz eta erlezaintzaz aritu da hizketan Maxixatzenekin.

**Testua:** Ane Olaizola. **Argazkiak:** Ane Olaizola eta utzitakoak.



### Erle multzoak erosi

Kaxak erlez hornitu ahal izateko, erlauntza asko dituzten erlezainei erosi ohi dizkie erle multzoak Epeldek. Horretarako, prozesu jakin bat jarraitu ohi da: erlauntza ireki, eta polenaz, eztiz, arrautzez eta erlez osatutako hiruzpalau abaraska ateratzen dituzte handik. Erregina aparteko kaiola batean babestuta edukitzen dute, eta hura erlauntza berrira sartzen dute gero, egun batzuen buruan erlauntza onar dezaten. Modu horretara sortzen dituzte erlezainek erlauntza berriak, eta multzo horiek udaberri aldera erosten ditu azkoitiarrak.

### Txalintxo inguruan

Joseba Epelde erlezaina da. Etxekoengandik ezagutu zuen jarduera hori, eta duela dozena bat urte piztu zitzaion erleak hazten hasteko ideia; orduetik, bere zaletasun nagusi bihurtu da. Hasieran, Martirieta eta Ipintza auzoetan izan zituen erleak, baina egun, Txalintxo mendiaren inguruan, Munoandira bidean, hazten ditu horiek. Erleak klima epeleko intsektuak izanik, erlezainak azaldu du hobe dela erlauntzak hegoaldera begira jartzea, ipar haizeaz babesteko. Horrela ditu egokituta azkoitiarrak erlez betetako kaxak.



### 30 erle kaxa

Egun, egurrezko 30 erlauntza edo erle kaxa ditu Epeldek. Neguan, 3.000 erle bizi ohi dira kaxa bakoitzean, baina udaberrirako 60.000 erletara irits daiteke kopurua. Izan ere, udaberriaren sortzen dira erleak, landare asko loratzen hasten direnean. Beraz, garaiaren arabera ere aldatu egiten da erlezainari dagokion lana: udazkenean, negurako erlauntzak prestatzen aritzen da, eta neguan, horien mantenu lanak egiten ditu, garai horretan erleak ez direlako jaiotzen. Udaberritik aurrera, berriz, erletegian lan ugari izan ohi du erlezainak.



### **Babes jantzia**

Erlezainak abilezia behar du izan erleak hazteko, eta hainbat babes neurri ere hartu behar ditu. Erlezainak, lana egiten duen bitartean, arropa berezia jantzi behar du erleen zitzadak saihesteko: goitik beherako buzoa, aurrealdean eltxo-sarea duen aurpegi-babesa edo maskara eta larruzko eskularruak dira erlezainaren osagarri oinarritzkoenak. Izan ere, erlezainak goitik behera geratu behar du babestuta, eta jantziak lodia behar du izan, eztena ez dadin azaleraino iritsi. Bestalde, erlezainaren jantzia argia izan ohi da, kolore horrek erleak lasaitzen dituelako. Dena den, zera nabarmendu du Epeldek: "Zitzada mingarria da, baina alergia-rik izan ezean, ez du aparteko arriskurik eragiten".



### **Operkulazioa**

Erlauntza bakoitza hamar abaraskaz osatuta egon ohi da, eta abaraska bakoitzean argizari lamina bana jartzen du erlezainak, erleek han lan egin dezaten. Erleek zabaldu egiten dituzte laminen zuloak, eta han ekoizten dute eztia. Epeldek adierazi duenez, eguraldi eta loraldi on batekin, bi asteren buruan ekoiz dezakete eztia, eta hura argizariarekin estaltzen dute gero. Prozesu horri operkulazioa deitzen zaio.





### Liztor asiarrrentzako tranpak

Liztor asiarrarrak "mehatxu larria" dira erleentzat. Epeldek adierazi duenez, liztorrek erleak harrapatu eta eraman egiten dituzte. Horregatik, harrapakari horientzako hainbat tranpa ditu jarrita erlauntzen ondoan. Liztor asiarrak tranpan eror daitezzen, Epeldek edari gozoren bat sartzen du potetxoan, eta modu horretara, liztorra hara erakartzen du. Behin potetxoan sartuta, ito egiten da.

### Kea, erleak lasaitzeko

Erleak asko lasaitzen dira kearekin, eta erlezainak, lan egin ahal izateko, kea nahitaez bota behar izaten die erleei. Izan ere, erleek kea antzematen dutenean, sute sentipena izaten dute, eta eztia jaten hasten dira asetu arte: "Badaezpada egiten dute, sutea izanez gero handik irten behar badute ere. Eztia janda, erleak lasaitu egiten dira, eta orduan irekitzen ditugu abaraskak. Kerik gabe, oso aztoratuta ateratzen dira abaraskatik, eta halakoetan ez dago kaxa irekitzerik", azaldu du Epeldek.





### **Altza, bigarren kaxa**

Udaberria aurrera doanean eta erleak hazten eta ugaltzen hasten direnean, erlauntzak edo erle kaxak erlez betetzen dira, eta orduan, Altza izeneko kaxa txikiago bat jartzen dute gainean. Altzek bederatzi abaraska izaten dituzte, baina han ez da egoten erreginik; beheko kaxan ugaltzen ditu erreginak kumeak, eta erregina altzara igaro ez dadin, sare bidez banatzen dira erlez betetako bi kaxak. Izan ere, erregina gora igaroko balitz, han ere arrautzak jartzen hasiko litzateke eta goiko kaxa ere kumez beteko luke. Gainera, erlezainek ez dute beheko erlauntzatik eztirik ateratzen; erleentzat izaten da guztia. Erleek altzan ekoizten duten eztia da erleizainek jasotzen dutena.



### **Eztia ateratzea**

Operkulazioa eginda, eztia ateratzeko unea da. Abaraskatik eztia ateratzeko gailu modernoak daude egun, baina irudikoa tradizionala da. Modu horretara, Abaraska atera eta labana batekin argizaria kentzen zaio. Dozena bat abaraska sartzen dira gailuan, eta eskulekuari eraginda makina biratzen hasten da. Zentrifugazio efektua egiten du mugimendu horrek, eta iturritik eztia ateratzen da.



### **Argizaria trukerako**

Erleek abaraskan lana egina dutenean, erlezainak hango argizari lamina kendu eta berria jartzen du, animaliek operkulazioa berriz egin dezaten. Erabilitako argizari panela desegiten du Epeldek: lapiko batean ura berotzen jarri eta baporearekin urtu egiten da argizaria. Hozten denean, solido geratzen da argizaria, eta hura Gipuzkoako Erlezain Elkarteari ematen dio; trukean argizari laminak jasotzen ditu.

### **Emitza gozoa**

Erlezaintzak uzta gozoak uzten ditu; ezta da erleek ekoizten duten elikagai ezagunena, baina ez bakarra. Izan ere, propoleoa zein erregina-jelea ere sortzen dituzte erleek, guztiak ere propietate nutritibo handikoak. Eztiaren ekoizpenak neguaren amaierarekin eta landareen loratzeekin bat etorri behar du, eta erlezainak, oro har, abuztuaren atera ohi du jaki preziatu hori. Epeldek adierazi du bere jarduna "zaletasun hutsa" dela; ez dela bere asmoa ezta egitea. Dena den, urtero 50 kilo inguru ezti ateratzen ditu, batez ere mila lore ezta. ■■■



# Abisatuta gaude



IRENE ELORZA

**O**letan ez dute parke eoliko bat egingo, zentral eolikoa baizik. Haize-errotak deituko diete tramankuluei, baina aerosorgailu erraldoiak dira, milaka tona pisatzen dute eta azalera handia hartzen duten munstroak. Bertara eramateko eta mantenua egin ahal izateko pistak eraikiko dituzte, lur mugimendu erraldoiak eginez eta lur azpiko hidrologian kalteak eraginez. Lurrarekin batera, animalia eta landare ugariren habitat hauskorra desagerraraziko dute. Aerosorgailuen besoek ehunka hegazti akabatuko dituzte. Beste hainbat, uxatu.

Zarata izugarria, jasanezina, entzungo da perimetro handi batean. Mendiaren lerroa apurtuko dute, paisaia aldatuko da, mendizaleek beste ibilbide batzuk bilatu beharko dituzte, ondare kulturala, etnografikoa, eta Izazpi-Samiño-Oletaren kasuan, ondare arkeologikoa ere galduko da.

Proiektu hau ez da ekologikoa izango, txikitzailea baizik. Energia berriztagarriaren onurak salduko dizkigute beren kontzientziak isildu eta gure amorrua otzantzeko asmoz, baina honek ez dauka zerikusirik energia berdearekin. Ekokapitalismo edo "kapitalismo berde" gordinaren adibide bat da hau. Kanpoko oligopolio batentzako negozio borobila, azken finean. Eredu desarrollista suizida baten barruko beste makroproiektu bat besterik ez da Oletakoa, AHTa bezalaxe. Pertsonen eta ingurumenaren zaintzara eta dimentsio gizatiarragoko proiektuetara bideratu beharko lirartekeen inbertsioak xahutzeko balioko duen beste makroproiektu zentralista bat inposatu nahi digute.

Euskal mendien industrializazioaren eta esplotazioaren aurrean, proiektu txikiagoak eta deszentralizatuagoak behar dira. Ingurumena benetan errespetatuko duten plangintzak. Eta, batez ere, kontsumoaren murrizketa eta desazkundera dira irtenbide zentzudunenak eta iraunkorrenak. Kutsatzen ez duen energia mota bakarra, sortzen ez dena da. Eredu neoliberal zaharkituarekin jarraitzen badugu, gureak egin du.

Azarotik dakigu Oleta mendian Capital Energy enpresak lau haize errotako industrialde bat jartzeko asmoa duela. Oraingoz, ez dakigu askoz gehiago. Seinale txarra. Dagoeneko hasi gara kokotean sentitzen piztziaren arnasa. Erreakzionatu al dugu? Herri bezala jokatu al dugu? Defendatuko al dugu gure lurra? Zer gertatuko da *Tapia Legearekin* topo egiten badugu? "Goi-mailako interes publikoko" proiektuen inguruko erabakimena udalei kendu eta Jaurlearitzari ematen die Ingurumen Administrazioaren Lege berriak. Hau da, bere burua abertzaletzat duen Jaurlearitzak erabakiko du proiektu bati izendapen hori eman ala ez, eta Azkoitiko Udalak, esaterako, ezingo ditu egitasmo horiek geldiarazi, nahiz eta bere hirigintza planen (eta herritarren) aurka joan. ■■■

**OLETAN EGINGO DUTEN ZENTRAL EOLIKOEN PROIEKTUA EZ DA EKOLOGIKOA IZANGO, TXIKITZAILEA BAIZIK**

# MAHAI EGUTEGIA 2022



1€

**UKAT**  
UROLAKO KOMUNIKAZIOTALDEA KOOP. ELK.

**HITZA**ko bulegoan eskuratu  
**AZPEITIA**

Soreasu 1. Dinamoia • 943-81 38 41

**ZARAUTZ**

Araba kalea 27 • 943-87 00 17

# AEK-ko ekosistema



MIREN ALBERDI

Astelehena da. Goizeko bederatzi eta erdiak. Aneren ikasleak iritsi dira. Guztiak iritsi eta lanean hasi bitartean, elkarri asteburuko kontuak kontatzen dizkiote. Andresek bere txakurraren berri eman digu, lau egun daramatza gaixorik. Carolina gaur ere nekaturik dator; asteburu osoan lan egin du, berriz.

Hamarrak jo dute San Martinen. Oihanak zain ditu Txaro, Beatriz eta Lourdes. Doro beranduago iritsiko da, baita Toño ere. Ana eta Karmen heldu dira. Beatrizek bonboi bana eman die amama izan berri delako. Aldizkariari forma ematen hasi dira.

Maiteren ikasleak ere badatoz, pixkanaka: Ghanako Umar, Aissa guinearra eta Kosovoko Erza dira lehenak. Banel gaur ez da etorriko, umearekin pediarrarenean dagoelako. German argentinarrak Whatsapp bidez abisatu du laster iritsiko dela. Proiektorea piztu eta mutil bat ohean eserita nagiak ateratzen. *Goiz esnatu* da izenburua. "Niri ez zait goiz esnatzea gustatzen", esan du Erzak. Zer egitea gustatzen zaien eta zer ez ari dira lantzen, eta aurreko ostegunean landutakoa ederki gogoratzen dute.

Mirenek gelan zain du Andrea. Esther eta Miguel Angel ere iritsi dira. Yoana presaka dator, Kepa eta Ion lasaiago. Itziar ere heldu da. Liburuaren

lanketa tokatzen da: Jon Arretxeren *Urrezko triangelua*. Ulermen galderak eta lexikoa landuko dituzte. Baita gramatika ariketak ere. Idazlana egitea baino nahiago dute hori.

Arratsaldeko hirurak. Oihanaren ikaslea den Alina pakistandarra, beti bezala, lehena iritsi da eta errepasatzen ari da. Korridorearen beste muturrean, Manolo eta Carlos sartu dira Mirenen gelan. Eta Aneren taldeko Firdaus ere iritsi da Ammar txikiarekin; bi hilabete dira jaio zela eta ikaskideei aurkeztu die. Ane, Oihana eta Miren badatoz eskaileretan behera. Iritsi dira guztiak eta hasi dira lanean hiru taldeetan.

Mirenen taldeko Patxiren biloba katarroarekin omen dago, baita Yolandaren ama ere. Javik larunbateko kontzertuko kontuak kontatu dizkigu, eta Angelak, berriz, txistea. Joey filipinarra gaur beranduago iritsi da, lurra lantzen aritu baita. Laster loreak landatzeko sasoia iritsiko da. Zineb eta Ibra ere etorri dira. Zineb Marrakechen jaio zen, eta Ibra, berriz, Senegaletik etorri zen duela zazpi urte. Gelako gazteenak dira. Gaur konpletiboa eta erlatiboa landu dituzte eta, batek baino gehiagok, izerditan amaitu dute eskola.

Bostak hamar gutxi. Amaitzen hasiko gara. Batzuk presaka doaz umeen bila eskoletara. Besteak, patxadaz.

Aio, bihar arte. ■■■

## Bertsoa paperean

GAIA: Hutsuneari.  
Izena: Julene Iturbe.  
Doinua: *Norbere mundu intimo*.


### Nola sagar ximurtu bat

iraungiz doan aldiko azal ximurtu bat ere nola ez da iraungiko? Sarri abestu izan dut ezer ez dela betiko, baina ikustea ez dut agian horren begiko... ta aspaldian joan da ez dugunik ikusiko, bada etxerik, lagunik, nor, zer azpikoz gaindiko... eta nahiz eskatu kartan, nahiz eskatu "ekarriko!", urteak daraman hori ez da bueltan etorriko.

### Eta joaten den orok

hutsa ohi dakar bertara, non hutsaren ho(r)tzikara den hotzaren huts-ikara... etxeko zapatila bi, aulki bat, kafe-kikara, jada memorian baino entzuten ez den algara... hutsunea hein batean bazen zerbait ez al da, ba? Ta bazena ez den arren, gugan oraindik zer bada, ta nahiz beteko duenik ez dagoen beharbada, sarri bertan gotortzen naiz.

# MARKETING DIGITALA



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

**GUKA**  ZERBITZUAK

**MILAR  
LARRAMENDI**

Etzetresna elektrikoak

  
**Cooking  
& Chef**  
EUKALDE GUNEAK

**dyson v8**  
**animal**  
**XURGAGAILUA**

**Lehen 399 €**  
**Orain 349 €**



**dyson** ETXEAK DITU MERKATUKO  
XURGATZAILE ONENAK,  
eta **MILAR LARRAMENDIN**  
BAKARRIK AURKITUKO DITUZU

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • [www.milar.eus](http://www.milar.eus)



**FK**

**KOPISTEGIA**

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxe: 943-85 20 91

[j.artetxe@fkkopistegia.es](mailto:j.artetxe@fkkopistegia.es)